



AZPEITIARRAK UHINETAN

HERRIKO KAZETARIAK EUSKADI IRRATIAREN 25. URTEURRENEAN

KLIK ▶ Inazio Azkune errege sagar biltzen udazkenean

agorre oparidenda
erdikale 1
tel: 943 811325

ana mari egana jantzi dena
santiago kalea 10
tel: 943 813785

azkue jantzi dena
erdikale 7
tel: 943 811506

gemma kinkilidenda
santiago kalea 10
tel: 943 151865

iturralde iturgintza
eliz kale 12
tel: 943 811112

jurundarena oinetakokak
erdikale 9
tel: 943 811143

gotain lurrindegia
erdikale 3
tel: 943 814358

jone eta maikar estetika zentrua
julian elorza 5
tel: 943 813898

jostaldi kirolak
erdikale 15
tel: 943 814023

lidia jantzi dena
erdikale 17
tel: 943 811264

martina isasti jantzi dena
julian elorza 5
tel: 943 812608

natura belardenda
enparan kale 15
tel: 943 150931

torrealday aholkularitza
iberotarren pl 7
tel: 943 150509

urrestilla jantziak
erdikale 6
tel: 943 811869

alde zaharra

Azpeitiko
alde-zaharreko
merkatarien elkartera

egin zaitez bazkide
tel: 943 81 08 95

Larre



Larre itxi egin dute. Ez, ez dut putetxearen lan sozialaren gainean hitz egingo,

Lagun batek, unibertsitateko lan baterako, hamar elkarriketa egin zizkien Larreko hamar neskei. Zenbat irabazten duten, horrek harritu ninduen gehien. Hilabete txar batean, gutxienez hiru mila euro. Hilabete arrunt batean, bost-sei mila eurotik gora. Hilabete on batean, auskalo! Prostituta sartzeko gogoia ematen du!

Hala ere, den-denek kexa berbera aipatzen

zuten. Bizitza arrunta, normala, ezin egin izatea. Ezkutuan ibili beharra, alegia. Herritik kanpo (zenbat eta urrutiago hobe) bizi beharra. Bezeroak ikusi eta ezin agurtu, ezikusiarena eginez. Herrian lagunik ezin izan. Norberaren urrutiko ofizioa asmatu, auzokideen susmo txarrik ez sortzeko. Eta abar, eta abar... Nire lagun horrek "estigma" deitzen zion. Hau da, ofizio horretakoak markatuta daudela, eta markatuta bizi direla.

Ederra da ezer ezkutatzeko ez izatea, nor-

bera den bezala agertzea. Egiten duguna egin, geure neurriaren arabera ondo dagoela ikustea, eta ikustarazi ahal izatea.

Duintasunaren parekoa litzatekeelakoan nago. Eta ez diot Larrekoak ez direnik duinak, bere neurrian, baina ez da gauza ederra ezkutuan ibili beharra. Ezkutatzeko ezer ez daukaren duintasun osoz ibiltzea bezalakorik ez dago.

Eta horrek asko balio du. Diruak baino gehiago.

uztarrria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)
Telefono eta fax zenbakia. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarrria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 89.a (2007ko azaroa)
Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarrria.com

Diseinua. **EREGI**

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarrria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Maider Zendoia

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

[u-iritzia]

08 Inkesta. Zer iritzi daukate herritarrek autobuseko bidaiari txartel bateratuaz? Horixe hilabete honetako galdera.

09 Iritzia. Mirari Garaia kazetaria iritzi-emaile hasi da Uztarrria herri aldizkarian, eta bi hilean behin idatziko du.

[u-mamia]

12 Politika. Negoziazio politiko garrantzitsua egin zuten duela urtebete Loiolan EAJK, Batasunak eta PSEk. Kontu bilduma.

14 Klik. Inazio Azkunek 45 urte daramatza sagastiak landatzen.

24 Kirola. Hemen da Behobia-Donostia, eta prest dira emakume asko.



[u-jakiteko]

26 Antzerkia. Lakrikun taldekoek antzezlana estreinatuko dute Euskal Antzerki Topaketan 25. urteurrenean.

[u-euskara]

36 EHE. Euskararen alde herrian lanean jarraitzeko, jendearen ekarpena eta diru laguntza ere beharrezkoak ditu Euskal Herrian Euskarazek.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
 ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
 (erakunde publikoak)





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Ipuina

Bazen behin herri handi samar baten ondoan zegoen herrikka baten goialdean zen herritxo bat. Guztira, dozena eta erdi etxe, eta alboko mendixketan sakanatutako baserri polit batzuk.

Herriaren bihotzera biltzen zen iturriko uraren freskotasunagatik edo bailaran behera etortzen zen haizeagatik, egun batean hango gazteak ohar-tu ziren beraien bularretan, zangoetan eta besoetan, barruan gordetzerik ez zegoen indarra zebilela, eta haien zainetan indar hura kirolaren bidez ateratzeko gogoak ezin zuela gehiago itxaron.

▶ **LAGUNARTEKO JOLASA.** Nola, ordea? Bertan ez zen ez kirol eraikuntzarik, ez eraikitzeo asmorik. Zabalgune handirik ere ez zen beheko herrietan modanzeuden kirolen bat martxan jartzeko. Soka luze eta lodi bat hartu zuten, eta elizako burni hesian lotu zuten berari tiraka aritzeko asmotan. Kirol ezberdina inondik ere, atzera gehien egiten zuenarentzat baitzen garaipenaren gozamen gozoa! Lagunarteko jolasa hasieran, lehiatzeko nahia etorri zen gero. Eliz atariko hesi okertutik soka askatu eta alde bietatik tiraka hasi ziren.

Horretan ari zirela jakin zuten hemen eta han txapelketarik bazela eta lotsati hasieran eta indartsu geroago, entrenamenduetan lortutakoa plazetara eraman zuten. Eta garaipenak heldu ziren, eta urrutirago irteteko gogo, eta autobusa eta ingelez zekien bakarren baten premia, eta serioago prestatu beharra, eta egun gutxi falta lehiaketarako eta kilo asko soberan, eta erretxina, eta urdurtasunarekin lo egin ezina, eta ahaleginak soilik sortzen duen lagunarte isila, eta burua tente aurkarien akatsaren zain, jarraitzaileen hatsa ondoan, eta etxekoen harrotasuna haiek horrela ikusita, eta berriz ere arratsalde luze eta euritsuak, eta berriz ere zalantzak, eta zalantzak uxatuta besoluzedun irlandar, gales, holandar, suitzar eta abarren aurka

neurtu zituzten indarrak hamaika zelaiko lokatze-tan, eta *mekaguenlaputa*, aurtengoa azkena.

Eta hurrengo urtean berriz ere bilerak, entrenamenduak, kiloak, autobusa eta besoluzedun aurkariak.

Eta egindako ahaleginaren ondorioz Donostiako Kontxa non zegoen ez zekien kirolari atzerritar askok jakin zuen herri txiki hartakoak euskaldunak zirela, haien ohiturak eta sinboloak zituztela eta, batik bat, tiralari haiek munduan bere tokia izan nahi zuen herri hartakoak izateaz oso harro zuedela.

Ahalegin oro zen gutxi garaipenarekin, edo gabe, etxera itzultzen zirenean zain zutenarekin alderatuta. Herritarrak autobusaren zain, malkoak, loreak, ama, andregaia, lagunak, anaia. Afaria. Emozioa. Maitasuna gainezka eta esker ona.

Europa osoko eta munduko hoberenak izatera iritsi ziren, behin eta berriz, eta inork ez zuen izan egindako balentria famatu beharrik, etxekoen muxuak bezala balentria handiek ez dutelako hitz gozoen beharrik.

Baina politika maltzuraren mamuak zoriontasun gehien den tokian egiten du gustuen min, eta garaitezinak ziruditen kirolariei nazioartean parte hartzeko eskubidea kendu zieten, ilusioa jan, indarrak ahularazi. Erabat aspertu, nazkatu ziren arte.

▶ **OROIMENEAN.** Eta orain ez dago ongietorri-rik, eta burdin hesiari erdoila atera zaio, ez dago neguko euririk eliz atariko kanpoaldean, autobusean egoskorrena nor den erabakitzeo eztabaida hotsik ez. Baina hori ez da okerre; okerre da, bertako eta alboko herrietako haurrek ez dakitela gure nazio txiki honek eman dituen kirolari handienetakoak bertakoak zirela, ahaztuak ditugula. Museoko oroitzapenak bihurtu dituzte. Eta eskerrak lortutako penak eta garaipenak laburtzen dituen museoa eraikitzea otu zitzaie! Sentimenduak ez dira argazkitan kabitzen baina bertako haurrek, haiei begira, jakin dezakete izan zirelako garaia.

Nik kirolari ikaragarri haiek gertutik ezagutzeko zortea izan nuen, eta benetan harro nago. *Nuerbetarrak*. 'Nuaretarrak' gainontzekoentzat.

HILEKO ESALDIA ▶

Joxepari bereziki, eta gainerako 'Nuerbe'-ko guztioi, mila esker

AZPEITIKO
6 harategi hauetan bakarrik



Euskal Okela
Carne de Vacuno del País Vasco

soilik baimendutako harategietan



"Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!"

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 82
AZKOITIA
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA



Harategi
Especializatu

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA.: 943 811671



Olatz Prat

Egunero (I)

Eskolara doa egunero bezala. Gaur ere izugarri kostatu zaio jaikitzea. Buruko mina izaten du goizetan eta urdaila uz-kurtzen zaio begiak ireki eta beste egun bat hasten dela konturatzean. Badaki gaurkoan ere infernua bizi beharko duela, negar egingo duela, tiro egingo diotela beste behin bihotzean eta gorputzeko zati bakoitzean. Kristal hautsiz egindako gorputz bat dela sentitu arte. Badaki odola hoztuko zaiola, eta hurrengo segundoan amorrusutan egongo dela, justu berriz ere izoztu aurretik. Badaki gaurkoan ere laguntzat dituen horien onarpena ez galtzeko ahalegin berezi bat egin beharko duela, lagunak ez direnen onarpena irabazteko egin beharko duen ahalegin bera.

Bere amak janzteko esan dion alkondara kua-droduna janzterik ez du nahi. Alkondara hori janzten duen bakoitzean, soinean daramana etxeko mantela ote den galdetzen baitiote algara burlati artean. Eta egia da, alkondara ez da polita, baina ez dago beste aukerarik. Gurasoei ez die poltsikok ematen –ezta gogoak ere– hilero zapatilla berriak, edo marka ezagun eta garestietako arropa erosteko. Zaran janzten da edo ahizpak utzitakoak aprobetxatzen ditu. Zentzugabea badirudi ere, horrek zenbaitetan desberdin egiten du. Eta hamabi urterekin garesti ordaintzen da desberdin izatea, edo hala izatea besteen begietara.

Alkondaragatik ez bada, ezizen bat asmatuko diotelako izango da, abizenarekin erlazionatua ziu-rrenik, beti bezala; edo gehiengoak duen moduko sudur txiki eta standar-ik ez duelako izango da. Eskua altxatu eta galderari ondo erantzun badio, ondo erantzun diolako, eta okerreko erantzuna bota badu, ondo erantzun ez diolako. Beti egongo da arrazoirik, beti aitzakirik, beti egongo da min egiteko astirik.

▶ **KONPONDU NAHIA.** Gauzak konpontzen saiatu da behin baino gehiagotan. Modu guztietara probatu du. Batzuetan isildu egin da, listua irentsi, irakasleak esan bezala hamar arte zenbatu eta aguantatu, “neska fuerteak bezala”. Zenbaitetan

hitz egin nahi izan du, “zergatik?” galdetu die erasotzaileei, “utzi bakean” esan die. Besteetan ez-entzunarena egin du. Baina azkenean, beti lehortzen da eta garrasi egiten du. Ostikoz jotzen ditu. Nonbaitetik atera behar du barnean daraman gorrotoa.

Badaki gauzak ez direla ostikoz konpontzen. Baina ezin du gehiago. Mundua jausten zaio irain bakoitzarekin. Egunero hil nahi du. Egunero nahi du azken aldia izatea. Denborarekin dena konponduko dela pentsatu nahi du, denborak guztia sendatzen duela esan izan diote beti. Baina egunak joan eta egunak etorri, itxaropenaren zakua txikitzen doa, hustutzen. Eta odola berotzen, gorrotoa handitzen. Nahitaez, txikiagoa sentitzen da egunero, itsusiagoa, leloagoa, zorigaitzokoagoa, bakar-tiagoa.

Errua berea dela sinesten du askotan, gauzak horrela badira zerbaitengatik izango dela pentsatzen du. Aldatu nahi du. Lagunak egin nahi ditu, baina ez daki nola. Ez zaio erraza egiten; bere buruaz hainbeste zalantza ditu!... Ezin du, nolabait, gustuko ez duen ‘produktu’ bat saldu. Bizi den herria txikia da, gainera, eta berari buruzko zurrumurruak guztiz zabaldua daudela uste du. Eskolaz aldatzea nahi izan du, baina badaki ez duela ezertarako balioko, erasotzen diotenen aurkituko dutelako min egiten jarraitzeko moduren bat.

▶ **GORROTOA GAINDITU.** Urteen poderioz uler-tuko du arazoa ez dela inoiz berea izan, ohartuko da besteen arazoan ordaintzailea besterik ez dela izan. Urteak igaroko dira berriz ere bere buruaz seguru egoterako eta, agian, ez du inoiz lortuko. Burua etorriko zaizkio pasarte haiek, behin eta berriz, eta pentsatuko du besteak ahaztuko zirela honez-kerokontu horiez guztiez, benetan ez zirela jakitun izango beregan eragiten zuten sufrimenduz eta kalteaz. Irakurri du nonbait, zerbait ahazten saiatzeabetikogogoan eduki nahi izatea dela.

Ez du ahaztu nahi, gorrotoa gainditu nahi du. Infernua erakutsi zien haiei begietara begiratu nahi die, zainetan gorrotoa sentitu gabe. Lotsarik sentitu gabe. Indartu egiten omen da horrelakoetan pertsona. Baina inork inor erasotuko ez balu, inork ez luke bere burua defenditu beharrik izango; gizakia zoriontsu izango litzateke bere ahultasu-nean.

HILEKO ESAERA ▶

Zaila da, baina garrantzitsua, behar denean laguntza eskatzea

I

E

III

R


III



anagrama eta logotipoa

vatatlogodak, kartelak, aldizkariak...

seinpletika: erroz, luak, pan elak...




goiko kalea 5, 3A
tel.: 943 08 06 88
20730 azpeitia
e-posta: eregi@eregi.net



EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA



Moxpit & Txilbor ▶ Xanti Rodriguez



Galdetuz ▶

Zer iritzi duzu autobuserako bidaia txartel bateratuaz?

LEIRE ETXAIDE ▶

azpeitiarra



“Ikasleentzako bonoa egotea ona da, baina klaseko egun gutxiago ditugun

egunetarako ondo datorkigu txartel bateratua: Aste Santuetan, Gabonetan...”

OIHANA ETXANIZ ▶

azpeitiarra



“Txartel bateratua erosoagoa da. Bestela, hilabete bukaeran, ordaindutakoak

egindako bidaien arabera konpentsatzen dizun edo ez egiaztatu behar izaten duzu”.

MIREN ARRUTI ▶

azpeitiarra



“Donostiara joaten naiz Lurraldebus txartela erabilia. Oraingoaz, gustura nago, nahiz eta badakidan beste herri batzuetan ez daudela hain gustura”.

IDOIA LIZARRALDE ▶

azpeitiarra



“Hasieran Lurraldebus txartela hartzeko asmoa nuen. Azkenean, aurreko urtean

bezala, ikasle bonoa hartu dut. Gustura nago ematen didaten zerbitzuarekin”.

Hau ▶



Aitor Zinkunegi

Inurri gazteak Azpeitian

Ahoa kexaz eta mespretxuz betetzea eguneroko ogia dutenen aurrean, ilusioz begiratzen diot inurri izaera duen herriko gazte mugimenduari. Errepresioaren gaintik, sistema irauli nahi duenari. Etxebizitza eskubidearen alde egunero lanean ari dena, norberarentzako neurri gabeko luxurik behar ez duena. Ez bi, ez bost, ez eta etxebizitza bakarraren jabetza pribatua lortzea ere helburu ez duena. Guztiontzat, bizitzeko behar dugun etxebizitza duina besterik eskatzen ez duena.

Norberaren soldata igoera baino gehiago, guztiontzako zerbitzu publikoaren eskaintza hobetzea helburu duena. Proiektu ezberdinak gauzatzeko, ikasten, kudeaketan eta eskulanean dabilzanak, guztiak beharrezkoak direla ulertzen duena. Naturaren mugak, baldintza moduan ulertzen dituen gazteria. Denok baldintza beretan ikasi, lan egin eta bizitzeko aukera izan dezagun eremu guztietan ekinean ari diren inurriak dira. Besteek izan dituzten aukerak norberarentzat aldarrikatzeaz gain, norberak izan dituen aukerak besteentzat aldarrikatzen dituzten inurriak. Baina inurri izaera ez diete aldarrikapenei zor, aldarrikapen horiek egia bihurtzeko besteen zain egon gabe, euren esku dagoena egiteari baizik. Egunero egiten duten lan eskerga iraunkorrari. Ikasketak eta lana egiteaz gain, interes pertsonalike gabe egunero bi edo hiru ordu herri gintzan jarduteari. Auzolanaren balioa eta funtzioa indartu nahi izateari.

Horiek dira ilusioa eta indarra ematen didaten gazteak, udal gobernu berriak kontuan hartu behar lituzkeenak. IA, EHE, BF, Segi, PAT, AzGA, txosna batzordea eta abar luze batean antolatuta, lan eredugarri eta umila burutzen dutenak. Azpeitia hobeto baten alde, iraultza txikien asanbladako kide diren inurri gazteak.

Apunteak ▶

GALDERA.

Eusko Ikaskuntzak Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademia eratu du Euskal Herrirako. Azpeitian edo Urola bailaran ikuspegi lokal lasai, kritikoa eta intelektuala emango lukeen bilgunerik behar al da?

BEHERA.

Txukuna, oso txukuna jarri dute Perez Arregi plaza, oinezkotuta, jendearentzat, baina gero eta auto gehiago egoten dira.



Perez Arregi plaza kanpoan aparkatutako autoak. UZTARRIA

GORA.

Aurten herrian 109 odol-emailek jaso dute oroigarria. Ekarpene ederra eta beharrezkoa egiten diote gizarteari haiek.

GORA.

Jose Luis Otamendik, Pako Aristik, Miel A. Elustondok eta Aitor Aranak liburuak aterako dituzte Durangoko Azokara begira. Euskal kulturaren lagungarri izango dira.

Ba al dakizu... ▶

...2008an Azpeitian San Sebastian egunaren hurrengo (urtarrilak 21, astelehena) jai eguna izango dela eta Udalak festei segida emateko ekitaldiak antolatuko dituela?

Zer dio? ▶ Mari Jose Bikendi (Juan de Antxieta Musika Eskolaren zuzendaria)

Herriko musikarien harrobia

Juan de Antxieta Musika Eskola 25 urte bete ditu aurten. 1982-83 ikasturtean hasi zen ofizialki eskolaren ibilbidea. Hasieran Karmelo Etxegarai ikastetxearen eraikinean hasi ginen lanean, handik Perretxikora pasatu ginen eta gaur Perdillegin gaude.

Azken urteotan herritar asko pasatu dira musika eskolatik. Izan ere, urtean 450 bat ikasle izaten ditugu; horietatik 330 musika eskolan izena eman dutenak eta gainerako 120ak ikastetxeetan eskola orduz kanpoko ikastaroetan parte hartzen dutenak. Urtero 20 edo 25 ikasle berrik ematen dute izena.

Urteotan lan asko egin behar izan dugu gauzak ahal den txukunen ateratzeko. Ez da bide erraza izan, baina gauzek pixkanaka-pixkanaka aurrera egin dute. Herriko egitasmoetan ere parte hartu izan dugu, eta dagoeneko herriko bizimoduan txertatuta dagoen erakundea gara.

Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi sorta berezia antolatu dugu ikasturte honetarako. Santa Zezilia bezperako –azaroak 21– kontzertuarekin abiatuko dira urteurreneko ekitaldiak. Egun horretan, Izarraitz frontoian izango den ekitaldian emango dugu ezagutzera 25. urteurrenerako Eztake taldeak konposatu duen abestia. Musika eskolan egindako marrazki lehiaketa irabazi zuen Lierni Varelaren irudia duten elastikoak ere salgai jarriko ditugu. Azkenik, eskolaren 25 urteak gogoratzen dituen liburua argitaratuko dugu.

Aurrera begira, ikasturte bukaerako jaialdian parte hartzea gonbidatu nahi ditugu ikasle ohiak. Ekaineko jaialdia parte-hartzailea izatea gustatuko litzazuke; hau da, bakoitzak abestu edo instrumentu bat jotzea. Izan ere, makina bat herritar pasatu dira 25 urteotan Juan de Antxieta Musika Eskolatik.

Zaborrarekin, zer egin?

Azkenaldian bikoiztu egin da gure etxeko lana. Zaborra bereizten hasi ginenetik zabor poltsa ugari pilatzen dira etxean, eta ontzietara egunero hainbat buelta egin behar izaten ditugu.

Baina ahaleginak merezi du. Izan ere, jakin berri dudanez, Gipuzkoa da zabor bereizketan Espainiako Estatuko lehena; zabor guztiaren %37 birziklatzen baitugu.

Zutabetxo hau egiteko aukera eskaini zidatenean, eskuartearen nuen zaborraren gaia. Donostialdeko San Markos zabortegia itxi behar zutela genioen albistegian eta zarauzarrek, beasaindarrek eta guk azpeitiarrak jasoko genuela bertako hondakin andana.

San Markos ez dute itxi eta, momentuz, jakin badakit Azpeitira ez dela Donostialdeko zaborrik iritsi. Momentuz, diot.

Izan ere, hiru zabortegietako arduradunak –Sasieta, Urteta eta Lapatekoak– zaborra jasotzeko prest azaldu dira, baina beti ere Gipuzkoako zabor guztiaren arazoari irtenbidea emango dion erraustegiaren proiektua aurrera ateratzen bada... Eta badirudi dagoeneko bideratuta dagoela, aurkako iritziak ere izan dituen arren.

Ez da kontu erraza zaborrarena. Horretan guztian, ordea, Lapate bezalako zabortegi txikiak asko erakutsi dute. Gizarte osoaren beharra euren interesen gainetik jarri dute.

Dudarik gabe egun ditugun hainbat eta hainbat ezinulertu konponetzeko baliagarria izan daiteke jokabide hori.

Azpeitia eta inguruko gaiak jorratzea ez zait erraza iruditzen. Baina ahalegintzeko konpromisoa hartu dudanez, bi hilabetetik behin hemen izango nauzue zuekin.

Pixkanaka-pixkanaka ezagutuko dugu elkar.

◀ Eta beste



Mirari Garaia

Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



Aitaren batean lo



Igor Aranbarri

Aupa, gizon! Kostatuta, baina azkenean idatzi diat. Beti egitekotan, eta azkenean berandutu. Gaur ere konpromisoa nian, baina hiregatik utzi diat...; izan ere, meza bat nian tarteko. Joatea tokatzen zitzaidaan, baina hiri ere idatzi egin behar eta... Ez kexatu, azkenean, hi aukeratu haut. Beno, ez hadi harrotu, egia esan, balantzan jarrita: 40 minututik gorako meza alabeste edozer... Bai, bazakiat, batzuetan joan beharra izaten duk, 'kunplitu'. Baina hi, errazagoa izango zuan kristau hauek ekitaldia prestatzen pixka bat saiaturko balira, ezta? Pentsa ezak igandero filma bera ikusten egongo bagina, edo futbol partida bera, edo

kantu bera entzuten egunero. Errespetu guztiz baina sotandun hauek bi mila urte zaramatek antzerki berarekin bueltaka. Apaizaren bakarriketa errepiakorra entzuteaz gain, ez lo-kartzeko, zutitu eta eseri ibili beharra zagok.

Orain arte ez ditek ikusle faltarik izan, baina gazte jendea igande goizetan mezetan ikustea mirari bat duk gaur egun, eta gu gaituk ikuskizun horren etorkizuna. Akaso, zahartu ahala, bekatuen beldur, hasiko gaituk sermoiak entzuten, ez zakiat ba... Hala ere, garbi diat mezara joaten den asko apaizari entzutera baino gehiago ondoren eliz atarian lagunei kontuak kontatzera joango

dela. Garai bateko mendian galduta bizi ziren baserritarrek elkartzetoki omen zitean eliz ataria eta ziur asko oraindik izango duk. Jantzi dotoreenak erakutsi eta herriko azken gorabeheren berri izatea zuan azoka erlijiosoon funtsa, eta ez zituan gauzak asko aldatuko.

Akaso, telebistan eta filmetan agertzen diren elizako kantari horiek antolatzeak lagunduko likek. Bai! 120 kilotik gorako 20 kide beltzeko koru animoso bat behar dik Azpeitiko parrokiak! Ekarrira akaso, gaur errazago joango nindukek mezetara. Ez zakiat gehiago sinistuko nukeen, baina 40 minutuak azkarrago pasatuko hitzkek, behintzat. Zer diok?

Hileta baten kronika beltza



Kepa Urbieta

Igor, maitea! Hirezako "beste edozer" naizela jakinda nola nahi duk harrotzea? Bromak utzita, oso ahobero hago, kristautxo! Ez nauk ni hasiko elizaren aldeko pregoia ematen, aspaldi laga nioan artalde horretan biltzeari-eta. Ahal dudan gutxienetan joaten nauk. Badakik, hildakoaren 'aldeko' mezatarra edo urtemugetara. Nigatik ez nindukek joango, baina jendea hil egiten duk. Beraz, gutxitan joaten nauk, kasurik okerretan, ordea. Gorroto ditiat, sufrimendua luzatu egiten dutelako. 'Hildakoaren alde baina etxekoen kalte', pentsatu izan diat sarritan.

Akordatzen nauk gure amama hil zenekoa. Meza garaia

arte, egun luze guztian, etxean eduki genian gorpua. Etxeko batzuk eta ni, beste gela batean denbora nola akatu asmatzen: egunkariak irakurri, sudokuak egin, telebistaren ahotsa fondoan... Gelan eta era berean inon ez, halaxe egoten ninduan ama etortzen zen arte. Hamar minututik behin. Ez zakiat zein etorri zela eta ezagutu egin nahi ninduela, amonaren lagunak, apaiza... Askotan bezala, Kristo bera agertzea falta zuan! Egundoko beroaldiak harapatzen nitian amaren hanka hotsak entzutean, 'bazetorrek' pentsatzean. Han egoteko eskatzen zidaan, eta nik ezetz. Aurpegi ona jarri —ahal nuena—, eta joaten ninduan bisita-

riak agurtzera. Ezin nian, ernegatu egiten ninduan jendearen jardunarekin: "Zein ederki jarri duten, oso guapa dago" eta halakoek. "Nahiago niken hi bahintz horkoa eta ez amama", pentsatzen nian, baina ezin ba esan. Egun hartan inor hil ez banuen, nekez egingo diat aurrerantzean, egon bitez lasai. Etazer esanik ez etxetik elizarako prozesioari buruz: 'Eh, gure amama hil da, begira, begira!'. Hori baino umilagoa zuan.

Uf! Hire gogoetari ez zioat behar bezala erantzun; hala ere, lasaitu egin nauk, hi. Beste batean idatziko diat sinesmenari, elizari eta apaizei buruz pentsatzen dudana. Hainbeste zaukaat!



behin batean LOIOLAN...

EAJk, Batasunak eta PSE-EEK negoziazio politiko garrantzitsua egin zuten duela urtebete Loiolan. Orduko kontu batzuk-eta jaso ditu Uztarriak

► Testuak: Enekoitz Esnaola ► Argazkiak: 'Urola Kostako Hitza' eta Uztarria

► BILERA ASKO.

EAJk, Batasunak eta PSE-EEK hama-bi bilera egin zituzten iazko udazkene-ko negoziazio prozesuan: irailean hiru, urrian sei, azaroan hiru (azkena 15ean). Gehienak, Loiolan. Gehien urrian egin zuten aurrera (iritzi publikoan bitartean Batasunaren legezta-tzea edo Iñaki de Juana presoaren gose greba ziren hizpide).

Aurretik, sei urteko kontaktuak izan zituzten Batasunak eta PSE-EEK. ETAk, berriz, 2006ko martxoan eman zuen su-eten iraunkorra, Espainiako Gobernuak eta biek "konpromiso batzuk" hartzean, erakunde armatuak berak gero adierazi zue-nez.

► IMAZEN AITORTZA.



EAJk urtero irailaren azkeneko igandean egiten du Alderdi Eguna (azken urteetan Forondan, Gastei-zen). Aurreko egunean EGlkoen jaia-eta egoten da, eta han izaten da EAJren presidentea. Iaz ez. Honegatik, Josu Jon Imaz EAJren lehen-dakariak berak aurten jakinarazi duen be-zala: "Loiolan nengoelako [Batasunare-kin eta PSE-EEekin negoziatzen]".

Imaz (ezkerreko argazkian) ez ezik, eta argitaratu denez, Arnaldo Otegi, Rufi Etxeberria eta Olatz Dañobeitia (Batasuna), Jesus Egiguren eta Rodolfo Ares (PSE-EE) eta Josu Erko-reka (EAJ) ere egon ziren Loiolan. Jende gehiagok ere hartu zuen parte, ordea, negoziazio haietan.

Datu bat: Batasuneko hiru haiek orain kartzelan daude.

► AKORDIOA LORTZEAR.

Elkarrizketa eta Akordio Politikorako Oinarriak ize-neko dokumentua izenpetzean izan ziren iazko aza-roan EAJ, PSE-EE eta Batasuna Loiolan. Akordio-ak bost puntu zituen oinarrian:

Nazioa. Euskal Herriaren identitate nazionala aitortzea.

Erabaki eskubidea. Euskal herritarrek hartutako erabakiak Espainiako Estatuak errespetatzea, eta proiektu guztiak defenditu eta gauzatu ahal izatea.

Nazioartea. Nazioarteko ordenamendu juridikoan jasota dauden herritarren eskubideak errespe-tatzea.

Hego Euskal Herria. Organo komun bat sortzea EAEko hiru herrialdeen eta Nafarroaren artean, eskumen exekutibo eta legegileekin.

Marko juridikoa. Marko juridikoan erreferendu-merako eskubidea jasotzea.

► BAINA BILERAK NON EGIN ZITUZTEN?

Bilerak Loiolako santutegian egin zituztela esan izan da. Uztarriak dakienez behintzat, Loiolako beste leku batean ere izan ziren. Batzarrak hain ugariak izan ziren urrian, negoziatzaileak lo egiten eta dena gelditu zirela Loiolan.



▶ EGUTEGIA.

Akordioak egutegi bat jaso zuen eta, horren arabera:

Konferentzia. 2006ko abenduaren 2an Donostian bakearen eta elkarrizketaren aldeko konferentzia egingo zen, Eusko Ikaskuntzak antolatuta.

Nafarren presentzia. 2007ko urtarrilean PSN batzorde negoziatzaileira sartuko zen.

Mahai politikoa. 2007ko maiatzeko hauteskundeen ondoren bi mahai osatuko lirarteke: bata EAEn, bestea Nafarroan. Indarke-

riarik gabeko egoeran izango zen, eta 2007 eta 2008 artean akordioa lortzea aurreikusten zuten.

Legebiltzarretara akordioa. Mahaietan onartutako akordioa Eusko Legebiltzarrera eta Nafarroako Parlamentura eramatea aurreikusi zuten, horietan oniritzia jasotzeko. Baita Espainiako Kongresura eramatea ere, oniritzia jasotzeko. Gero erreferendumera eramatea proposatzen zuten EAJK, Batasunak eta PSE-EEk.

▶ LOIOLATIK VATIKANORA.

Eneko Bidegainek *berria.info*-ko bere blogean lehen-go urrian, ETAren su-etenaren hausturaren ondoren Ramuntxo Camblong EAJren Ipar Buru Batzarreko lehendakariak esandakoa anekdota gisa:

“Bilkura hartan akordio hori egin zenean, Batasunak galdegin zuen testu hori armairu berezi batean ezarri behar zela, eta kutxa hori badakizu non ikusten zuten? Ez banku batean, ez! Vatikanon!”.



Vatikanoa.

▶ BERTSIOAK.

Joan den azaroan negoziazioak hautsi zirenetik, bertsio lehia izan da EITB eta *Noticias* taldearen, *Gara*-ren eta *El País*-en aldetik. Sentsibilitate bakoitzak, berea.

▶ DESADOS.

EAJ. “Gauetik goizera irizpidea aldatu zuten Batasuneko ordezkariak, ETAk esan zielako Loiolan lortu genuen akordioa ez zela onartzeko modukoa. EAJK, demokrata eta abertzale gisa, proposatutakoa ezin zuen onartu”.

PSE-EE. “Batasunak halako batean Nafarroari buruz exijentziak jarri zituen, eta horiek ezin genituen onartu”.

Batasuna. “Indefinizio asko zeuden. Erabakitze-ko eskubidea eta lurraldetasunaren gakoak, gatazkaren korapiloak askatu-ko zituzten akordioak ez ixtea gerta zitekeen. Horregatik akordio zehatzago baten aldeko apustua egin genuen”.

▶ LOIOLAKOAZ AZKENALDIAN.



Pernando Barrena (Batasuna). “Loiolakoa lortzeko egin genuen Anaitasunako proposamen zehatza”.

Miren Azkarate (Eusko Jaurlaritza). “Loiolan adostuzena onartzeko eskatzen diogu Zapaterori”.

Mariano Raxoi (PP). “Loiolako negoziazioek aurrera egin izan balute, Espainiaren izaera arriskuan egongo litzateke”.

▶ LOIOLA BIS.

Imanol Murua Uriak *berria.info*-ko blogean kontatua urrian:

“Egibarrek esan zidan han aurreratutakoa baliagarria izan zitekeela hemendik aurrerako elkarrizketatan. Alegia: PSE Loiolan erabaki eskubidearen gainean onartzera iritsi zena onartzeko prest al dago Zapatero? (ez orain, hauteskundeen ondoren baizik). Onartuko balu, akordioa egina dago (horrela esanda, ez du horren zaila ematen). Negoziazioaren eskema, jakina, beste bat litzateke (bi hankekoa), eta negoziatzaileak ere beste batzuk liratete.

Egiguren/Lopezen orde, Zapatero. Eta Imazen orde, Ibarretxe. Eta ados jarriz gero, hirugarren hankari (nori?) aurkeztu: edo hartu, edo utzi”.

▶ REIDEN BISITA AURREZ.

EAJK, Batasunak eta PSE-EEk Loiolan batzarrek hasi aurretik, Loiolako josulagunek Euskal Herriko bake prozesuan zeresana izan zuen pertsona ezagun baten bisita jaso zuten: Alec Reid apaiz irlandarrarena (eskubiko argazkian). 2005eko azaroan egon zen han, hitzaldia ematen. ◀



sagastietako

ERREGEA

Azkune baserriko ugazaba da Inazio Azkune; Izarraitz auzoan dago baserria. Orain 45 urte landatu zituen lehen sagastiak han. Errege sagarra ematen dute haren zuhaitzek. Urria bilketa garaia da

► Testuak eta argazkiak: Maider Zendoia



ERREGE SAGARRA, SAGARREN ARTEKO ERREGEA.

Inazio Azkune eskarmentu handiko gizona da sagarrei dagokionez. 41 urte zituela saldu zituen aitak oinordetzan utzitako animaliak eta sagastiak landatzeko erabakia hartu zuen. Dagoeneko hiru mila zuhaitz eta bi sagasti ditu baserriko eremuan.



BILKETA GARAIA.

Azkune baserriko senitartekoen urriko zubian ekin zioten sagarrak biltzeari. Hiru egunean aritu ziren lanean hamasei familiarteko eta bost mila kilo errege sagar bildu zituzten.

GIRO EGOKIA.

Temperatura egokia mantentzeaz gain, oso garrantzitsua da giroan dagoen hezetasun maila makina espezializatu bidez neurtzea. Aurrerakuntzek lana erraztu diotela dio Azkunek.


KAMERA BILTEGI BIHURTUTA.

Jasotako sagarrak kamera barruan antolatutako biltegian gordetzen dituzte. Errege sagarrak zero graduko tenperaturan mantentzen dituzte.



» **SAGAR ASKO, ERREGEA BAT.**

Sagar mota ugari saltzen dute Azkune frutategian: Golden, King David... Dena dela, guztien arteko erregea baserrian bertan landatzen dutena da: errege sagarra.



▲ **NEURKETA.**

Tamainak axola du, eta asko, horren arabera jarri behar denean produktuaren salneurria. Inazio Azkunek plastikozko uztai batekin neurtzen ditu sagarrak. Hiru tamainatan sailkatu ondoren erabakitzen du haien prezioa.

▲ **DENA PREST.**

Prozesua dendako apaletan ematen dute bukatutzat. Urtean zehar landatu, zaindu eta jasotako sagarrek dendara iristean jasoko dute bezeroen oniritzia edota gaitzespena. Urteko lanaren ordaina. ◀

Uztarrria herri aldizkariak 8 urte bete ditu; 1999ko azaroan sortu zen ▶



KULTUR AGENDA ▶ Hilabetea.

Azaroa.
Banaketa.
Asteburu honetan.
Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.
Tirada. Mila ale.
Argitaratzailea.
Uztarrria Kultur Koordinakundea.



▲ DUELA 10 URTE...

Azpeitiko euskalgintzak eta kulturgintzak Uztarrria Kultur Koordinakundea sortu aurretik egindako lehen bileratik hamar urte pasatu dira; 1997ko urriaren 18an egin zuten. 25 bat lagun elkartu ziren, eta harrezkero beste bilera batzuk egin zituzten. Koordinakundea sortu behar zela erabaki zuten, eta halaxe eratu zuten 1998ko martxoaren 3an. Argazkian, 1997ko bileran, Sanjuandegin parrokiaren lokaletan.

...10 urtera. Uztarrria gogoetan hasi da, etorkizunean zeri eta nola heldu aztertze

'Hitza' berrituaren aurkezpena hilaren 6an

Urola Kostako Hitza-k beste aurre-rapauso bat eman go du azaroan, egunkaria eta Internet berritu egingo dituelako. Eskualdeko aurkezpena **Azpeitian** egingo du, azaroaren 6an (asteartea), Aitonena I-en, 19:00etan. Ekitaldia zabala izango da. 2004ko otsailaren 20an sortu zen *Urola Kostako Hitza*, eta Uztarrria Kultur Koordinakundea bazkide sortzaileetakoa da.

U

1.067

bazkide gara dagoeneko Uztarrrian; eskerrik asko denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarrriari helarazteko aukerak:

- ▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarrria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarrria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

BAZKIDEAK ▶

- Urtean. 27 euro.**
- Jasoko dituzu.**
- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.
- ▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.
- ▶ *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburua.
- ▶ *Loiolarik ez balitz* liburua.
- ▶ *Otsobeltz* liburua.
- ▶ *Urrestillako musika taldeak* liburua.
- ▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua.
- ▶ *Erdi prezioan: Mendi gida eta Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

- Ez du diruz laguntzen.
- Jasoko duzu.**
- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.

JOAN...



Gurean ▶

NAROA INTXAUSTI

▶ sopranoa

“Gustura itzuliko naiz Azpeitira”

NarOA Intxausti (Bilbo, 1981) sopranoak Loiolako basilikan abestu zuen urriaren 14an Organo Erromantikoaren Nazioarteko VIII. Zikloaren baitan. Loreto Aramendi organulari oriotarra izan zuen laguntzaile.

Zenbat aldiz izan zara Azpeitian?

Hona etortzen naizen aurreneko aldia da. Ez nekien hemen ekimen hau egiten zenik. Egia esan, gustura itzuliko naiz Azpeitira.

Ekitaldia gustatu al zaizu, beraz?

Oso interesgarria iruditzen zait, organoa ez delako asko entzuten den instrumentua. Ona da publikoak instrumentu hori ezagutzeari.

Ba al dago entzuleei bereziki gustatzen zaizen abes-tirik?

Händelen *Mesias* obrako *Rejoice* zatia oso ezaguna da eta jendeak gustura entzuten du. ◀



Arazoak Lasan lur-jausiagatik

Lasao auzotik Aizarna eta Errezil aldera doan errepidera lur-jausia erori zen urriaren 5ean. Altuna y Uria S.A. enpresak Lasan duen hondakindegitik eroritako lurra eragin zuen. Ondorioz, Azpeitiko Udalak espedientea ireki zion enpresari, 20 urtean lurra bainetik gabe pilatu izana leporatuta. Argazkian, errepidea lur-jausiaren ondoren.



Dantzari txikiz josita herria

Dantzari Txiki Eguna izan zen urriaren 21ean Azpeitian. Zestoako, Zarauzko, Oñatiko, Mutrikuko, Legazpiko, Urretxuko eta herriko hurrek dantzatu zuten. Argazkian, dantzariak Perez Arregi plazan.



Harrera ona Triku Festiek

Triku Festie ekimen musikala egin zuten urriaren 25etik 28ra herrian. Jende asko azaldu zen plazan karpan antolatutako kontzertuetara. Argazkian, urriaren 19an San Agustinpen izandako aurkezpena.

Ardo dastaketa jendetsua

Herritar askok hartu zuen parte urriaren 20an plazan II. Ardo Dastaketan. Hemezortzi upategitako ardoak edan, eta sardinak, gazta eta Gernikako piperrak jateko aukera izan zuten.



URRIAK 7 ▶ Mami Sakato organo-jotzailearen kontzertua, Loiolako Basilikan. **URRIAK 16** ▶ Julian Bereziartua medikuak *Larrialdiak* izeneko hitzaldia eman zuen Aitonenan. **URRIAK 20** ▶ Santa Ana Ordiziako abesbatzaren kontzertua, Betharramdarretan / Batzar orokorra, Gaztetxean. **URRIAK 21** ▶ Udal Musika Bandaren kontzertua, plazan / *Blow up* filmaren emanaldia, Betharramdarretan. **URRIAK 25** ▶ *Montaña de luz* eta *La Chivichama* filmak Mugarik Gabe zine zikloaren baitan, Betharramdarretan.

AZAROAK 9 ▶ Giltzikaro antzerki taldeak *Honolulu: leku bat* antzeztuko du 22:00etan, Gaztetxean. **AZAROAK 20** ▶ *Indarkeria ikustezina: mikromatxismoak, amona mirabearen sindromea eta emakumearekiko indarkeria komunikabideetan* ikastaroa 17:30ean, Aitonena I-en. **AZAROAK 21** ▶ Antxieta Musika Eskolaren Santa Zezilia eguneko jaialdia 19:30ean, Izarraitz frontoian. **AZAROAK 30** ▶ Bertso afaria Xebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin 21:00etan, Mendizabal erretegian.



SAN MARTIN JAIK ERREBALEAN.

Ekitaldi ugari antolatuta dute jaiegunerako: tixtularien goiz eresia 11:00etan, umeentzako jolasak 15:30ean, sokamuturra 16:30ean, meza parrokian 18:30ean eta afaria 20:30ean.

AZAROAK 10 ▶ Egunean zehar ▶ Errebal kalean ▶ Errebaleko Festa Batzordeak antolatuta

AITZIBER GINE ▶ San Martin egoitzako psikosozial teknikaria

“Egoitzako **egoiliarrak bisitatzen** gonbidatzen ditut herritarrak”

Urtero bezala, aurten ere San Martin Astea ospatuko dute azaroaren 5etik 11ra San Martin egoitzan. Hilaren 5ean hasiko dute astea, udal ordezkarien partaidetzarekin. “Oso aste berezia izaten da, ekitaldi asko antolatzen ditugu egoiliarrei eta herritar guztiei zuzenduta”, dio Aitziber Gine egoitzako psikosozial teknikariak. Ekimen ugari ikusteko aukera izango da: Antxieta Musika Eskolako haurren emanaldia, Jose Maria Soroaren kantaldia, Legazpi-ko Errondailaren saioa, bingoa, txokolatada...

Ginerekin ustez, “egunik bereziena San Martin eguna izaten da. Aurten asteko azken eguna tokatuko da, azaroaren 11a”. Meza izango da 10:30ean, bazkari berezia 13:00etan eta, Amaia eta kitarra taldearen emanaldia 17:00etan.

Azaroaren 5ean Arantza Sein psikologoak emango duen hitzaldia nabarmendu du Ginek. “Dementia eta alzheimerria izango ditu hizpide. Gai interesgarria izan daiteke herritarrentzat”.

Antolatutako ekimenetan parte hartzeko deialdia egin die azpeitarrei. “Egoitzako egoiliarrak bisitatzen gonbidatzen ditut herritarrak. Guk asistentzia ematen diegu, baina alde emozionala betetzeko inguruko bisitak beharrezkoak dituzte”. ◀

AZAROAK 5 ▶

San Martin Egoitzako Astearen inaugurazioa.

▶ 11:00etan.

▶ San Martin egoitzan.

▶ San Martin egoitzak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

Martin Donearen Jaiak
Lasao auzoan.

AZAROAK 4 ▶

▶ Txakolin eta sagardo dastaketa.

▶ 11:30ean.

AZAROAK 9 ▶

▶ Txupinazoa, 20:00etan.

▶ Baratzuri zopa eta gaitaina jana, 21:00etan.

▶ Kontzertuak, 22:30ean.

AZAROAK 10 ▶

▶ Haurrentzako jaialdia frontoian, 16:00etan.

▶ Bertso afaria, Joxe Lizaso, Imanol Lazkano eta Jokin Urangarekin, 20:30ean.

AZAROAK 11 ▶

▶ Meza, 11:30ean.

▶ Auzoko jubilatuentzako hamaiketakoa, 12:00etan.



AIREAN

25 urtean

Euskadi Irratiak orain 25 urte igorri zuen aurreneko aldiz: 1982ko azaroaren 23an. Hasieratik egon dira euskarazko komunikabide hartan lanean azpeitiar kazetariak

► Testuak: Mainer Zendoia ► Argazkiak: Iñaki Elortzak utzita eta Mainer Zendoia

Euskadi Irratiak 1982ko azaroaren 23an igorri zuen lehen aldiz. Irratia kanal bezala erabilia, informazioa euskaraz eskaintzea zen haren egitekoa. Komunikabide berri bat zegoen sortzeko, profesional berriak heitzeko eta entzule berriak erakartzeko.

Euskadi Irratia eratzeko unean, asko eta asko dira irratik publikotik pasatutako profesionalak. Haien artean, hainbat azpeitiar: Iñaki Elortza, Txetxu Urbietak, Axun Arozana, Josune Azkue (teknikaria), Iñaki Letamendia (kirolak), Xabier Euzkitze, Joxe Mari Iriondo... Gaur egun han jarraitzen dute lanean Elortzak eta Urbietak (kirol sailean, Donostian) eta Arozenak (albigestegietan, Gasteizen).

Elortza (1952) izatez aparejadora da, baina planoak utzi eta mikrofonoak hartzea erabaki zuen 1981ean. "UZEIn lanean nenbילה, euskarazko kirol hiztegiak egiteko proiektuan parte hartu nuen. Magnetofonoa hartu eta Atotxara joaten nintzen Realaren partidak nerontzat erretransmititu eta, ondoren, grabatutakoa aztertzeko". Horretan zebilela, Jose Mari Oterminek –garai hartan Herri Irratiko esataria eta gaur egun Euskal Telebistako programazioburua– jakin zuen magnetofoiarekin futbol partidak erre-

transmititzen zituen gazte bat joaten zela Atotxara. "Grabazio bat eskatu zidan eta, entzun ondoren, irradian lan egin nahi nuen galdetu zidan; hurrengo egunean bertan hasi nintzen lanean Donostian Herri Irratian", dio Elortzak. 1981eko maiatzan.

Hamabost hilabeteetan Herri Irratian lanean aritu ondoren egin zuen jauzia Euskadi Irratira, 1982ko udan. Urte hartan hasi zen gorpuzten Euskadi Irratiko proiektua. Elortza bera kazetaritza eta bikoizketa ikasten hasi zen EiTbko "kazetaritza eskolan". Han zegoela, Euskadi Irratian sartzeko oposizioak deitu zituzten eta Kiroletako buru izateko plaza atera zuen 1982ko uda hasieran. "Euskadi Irratia sortu zenetik ari naiz lanean han; hogeita bost urte daramatzat lan honetan".



Elortza –ezkerrean– Pedro Miguel Etxenike Jaurilaritzaren orduko Kultura sailburuarekin 1983ko Nafarroa Oinezen, Lekarozen.

► **PATU KONTUA?** Urbietak (1968) eta irratiaren arteko harremana aspalditik datorren kontua da. Patuak haren ibilbidean zerikusia izan duela ere pentsa daiteke, Euskadi Irratia hasi zen egun berean jaio zelako, baina 1968an.

Txikitatik izan zuen argi kirolarekin harremana zuen zerbaiten lan egin nahi zuela. "Hasieran futbolari zintzuan nahi nuen, baina segituan konturatu nintzen ezinezkoa zela ni futbolari izatea. Irratia betitik gustatu izan zait, beraz, nire gustuko bi gauzak elkartzea lortu dut: kazetaritza eta kirola", dio Urbietak. Horrela, Kazetaritza ikasi zuen Leioan eta bekadun hasi zen lanean Euskadi Irratian, 1990ean. Gaur egun, *Hiru Erregeen Mahaia* asteburuetako kirol magazineko aurkezlea da.

Euskadi Irratia abian jarri zutenean, ubertso berri bat zuten eraikitzeko. Elortzak eta haren lankideek gogor lan egin zuten euskarazko irratigintzaren zuta-beak sendo errotzeko. "Izan ere, euskarazko irratigintzan dena sortzeko zegoen", gogoratzen du Elortzak. "Guk sortuak dira gaur egun normaltzat jotzen ditugun hitz asko. Orain denok ulertzen ditugu 'saskibaloia', 'marrazaina' edo 'atezaina' bezalako hitzak, baina gu lanean hasi ginenean lexiko hori guztia asmatu behar izan genuen".

Urbietak Euskadi Irratia martxan jarri eta zortzi urtera hasi zen lanean han. Ordurako gai oinarritzkoenak zehaztuta bazituzten ere, egunerokotasunak adostu beharreko kontu asko uzten zituen mahai gainean. "Guztia asmatu



Elortza, Jose Luis Kortarekin –ezkerretik bigarrena– 2006an, Donostian, Castrok Kontxa irabazi zuenean

“Euskadi Irratia sortu zenetik ari naiz han lanean eta, beraz, bertan 25 urte daramatzat”

“Orduan gehien axola zuena euskarazko irratia egitea zen. Maila lortutakoan eskatzen du jendeak kalitatea”

“Azpeitiarrok geldirik egon ezin duten ospea daukagu irratian”

IÑAKI ELORTZA ▶

Euskadi Irratiko kazetaria

beharra zegoen; gu hasi ginenean ere, gauza asko kontsultatu behar izaten genituen, ez genizkien. Geure artean hartu behar izan genituen erabaki asko”, esaten du Urbietak. Dena dela, aholkularitza ona izan zutela gogoratzen du Elortzak. “Kirol munduko jende aditua izan genuen bidelagun, gauzak behar bezala izendatzeko zertaz ari zaren jakitea behar-beharrezkoa baita”.

▶ **ORDUKO EGOERA.** Euskadi Irratia igortzen hasi zen sasoian, Euskal Herriko egoera soziopolitikoak bestelakoa zen. “Gizarteak orduan euskararen beharra zeukan. Orduan gehien axola zuena euskarazko irratia egitea zen. Maila hori lortutakoan eskatzen du jendeak kalitatea”, dio Elortzak. Haren ustez, “garai hartan jende asko genuen militantziagatik, euskaraz ari ginelako maite gintuzten, baina gaur egun egiten dugunaren erantzukizuna eskatzen digute, diru publikoarekin ari garelako irratia egiten”.

Urbietarentzat, euskaraz ari zitea motibazioa izan da oro har, baina mugarrria ere bai zenbait kasutan. “Alde batetik, geuk asmatu behar genituelako zenbait hitz eta, bestalde, erdarazko komunikabideek askoz ere eremu zabalagoa zutelako lanerako”. Dena dela, zailtasunek kazetari gisa hazten laguntzen dutela iritzi dio.

▶ **AZPEITIARRAK IRRATIAN.** Bat baino gehiago dira komunikabideetan lan egiten duten az-

Azkar-azkar

Eman nahi duzun albistea. Realak Lehen Mailara igo da.

Une gogor bat. Lana ez zaizunean ateratzen zuk nahi bezala.

Une pozgarria bat. Realak eta Athleticek irabazitako Espainiako Ligak.

Komunikabide bat. Irratia.

Komunikazio enpresa bat. EITB.

Gustuko formatoa. Kirol alorreko edozein.

Kazetari bat. Carlos Llamas.

Gustuko irratsaioa. *Kostaldeko Trena.*

Gustuko alorra. Kirola.

Gainditu gabeko

ikasgaia. Hizkuntzak hobeto menderatzea.

Kazetariaren oinarritzko

ezaugarria. Zintzoa eta leiala izatea.

Gabezia bat.

Gaztea izatea, baina hori denborak sendatzen du.



Joane Somarribarekin, 2004ko Euskadi Irratia Saria irabazi ondoren.

▶ peitiarrak. Euskadi Irratiaren kasuan ere herritar bat baino gehiago pasatu dira erredakzioetik. “Azpeitiarrok gauza bat dugu geure alde: herri handi eta euskalduna gara. Gainera, geldirik egon ezin duten pertsonen ospea ere badugu irratian”, dio Elortzak. Urbietak uste du erredakzioan ez dagoela azpeitiar asko, baina daudenak “nabarmenak” direla. “Jario handiko pertsonak garaela esan izan didate”.

25 urtek askorako ematen dute. Ondorioz, une pozgarri zein gogorrek bizitza tokatu zaie Euskadi Irratiko esatariei. Txiki Orioko patroia, Diego Garcia eta Jaber Sagarazu kirolarien heriotzak saminez gogoratzen ditu Elortzak. “Kiroletan gertu izan duzun jende bat azkenean zeure egiten duzu eta, une horietan, zuzenean oso gaizki pasatzen dut, oso sentibera bainaiz”. Urbietari ere asko kostatu zitzaion Diego Garcia, Beñat Arrue eta Jokin Ormaetxea kirolarien heriotzen berri ematea.

▶ **ALBISTE ONAK.** Dena dela, momentu zoriotsuak bizitzeko aukera ere eskaini die irratia euren ibilbideetan. Elortzari albiste bat baino gehiago etortzen zaizkio burura: Athleticek Las Palmasen Espainiako Liga irabazi zueneko, Realak Xixonen irabazitako Espainiako Liga, Miguel Indurainek Frantziako Tourra irabazi zueneko... Urbietarentzat albiste txikietan egoten dira sarritan pozik handienak.



Urbietak —laukian— Jokin Ormaetxea Sariko saioan, 2006an, Azkoitian.

“Jo dezagun astebete albiste baten atzetik ibili zarela eta, asko kostatu ondoren, azkenean albiste hori ematea lortu duzula. Agian, inork ez du baloratu behar bezala, baina zuretzat egundoko lorpena da, atzetik duen lana gogoan duzulako”.

Pasadizoak ere bizi izan dituzte urteotan. Elortzak maratoi bat erretransmititzean gertatu zitzaiona du oroimenean. “Ekologiare-

kin oso kontzientzatuta nengoen eta lasterketaren berri bizikletan nindoala ematea pentsatu nuen. Egundoko tresneria neraman soinean eta, irratsaioan zuzenean sartu nintzenean, lurrera erori nintzen”.

Urbietak, berriz, Euskadi Irratiaren egoitza Donostian Larramendi kalean zegoen garaiko pasadizoak du gogoan. Iñaki Elortza, Joxe Mari Apaolaza eta hirurak larunbateko programa ari ziren egi-

“Irratia betirik gustatu izan zait; beraz, nire gustuko bi gauzak elkartzea lortu dut: kirola eta kazetaritza”

“Hasiera hartan guztia asmatu beharra zegoen. Geure artean hartu behar izan genituen erabaki asko”

ten. “Xabier Lauzirika *Estrobo* sartu zen zuzenean programan arraunaren inguruan hitz egiteko, baina bestelako kontuez hitz egiten hasi zen: andrea Benidormera joan zitzaiola, txakurra paseatzera atera zuela... Hiru esatariok barrez hasi ginen eta teknikariak konexioa moztu zuen”. Urbietak dio barre errazekoa dela. “Gaiztakeria egin nahi badidazu, nahikoa da kontroletik lau inozokeria egitea; segidan hasten naiz barrez”.

“Azpeitiarrak jario handiko pertsonak garaela esan izan didate”

TXETXU URBIETA ▶

Euskadi Irratiko kazetaria

Azkar-azkar

Eman nahi duzun albistea. Reala berriz ere Lehen Mailara igo da.

Une gogor bat. Diego Garciaren ehorzketa ondorengo irratsaioa.

Une pozgarria bat. Diego Garciak Helsinkin Europako Txapelketan maratoian zilarrezko domina irabazi zuenean.

Komunikabide bat. Irratia.

Komunikazio enpresa bat. EITB.

Gustuko formatoa. Kiroletako magazina.

Kazetari bat. Herri Irratiko Tito Irazusta.

Gustuko irratsaioa. Goizean behin.

Gustuko alorra. Kirola. **Gainditu gabeko ikasgaia.** Hizkuntzak ikastea.

Kazetariaren oinarritzko ezaugarria. Illusioa.

Gabezia bat. Illusio falta, gose falta.

AXUN AROZENA ▶ Euskadi Irratiko kazetaria

“Nire lanbideak **jende asko** ezagutzeko aukera eman dit”

Axun Arozenak (Azpeitia, 1965) Euskadi Irratian lan egiten du 1986az geroztik. Gaur egun, euskarazko irratiko publikoak Gas-teizen duen kazetarietako da.

Nolatan hasi zinen irratian lanean?

Nik Magisteritza ikasi nuen, baina unibertsitateko azken kursoan irratiko proba batzuk egiteko aukera izan nuen. 1986an hasi nintzen lanean Euskadi Irratian. Andereño eta kazetari gisa aritu nintzen lanean hiru urtean, baina azkenean ikastola uzteko erabakia hartu nuen.

Nola sortu zitzaizun Gasteizera joateko aukera?

Orain dela hamabost bat urte gertatu zen dena. Nik beti albistegietan egin izan dut lana. Orduan Donostian nengoen lanean eta Gasteizera joatea proposatu zidaten. Hasieran, Gasteiz urrutik ikusten nuen. Gainera, politikak eta erakundeek eragindako informazioa egiteak kezka ere ematen zidan. Azkenean baiezia eman nuen eta Gasteizera joan nintzen.

Inoiz damutu al zaizu hara joateko erabakia?

Sekula ez. Oso pozik bizi naiz Gasteizen. Gainera, kalean egindako informazioak asko bertetzen nau. Gasteizen inguruko informazioak kanpotik begiratuta serioa ematen badu ere, niri ez zait hala iruditzen.

Informazioa Eusko Jaurlaritzaren itzalpean mugitzen al da Gasteizen?

Ez, aberatsa iruditzen zait. Nire lanbideak jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Gai-

nera, kalean gertatzen denaz eta erakundeek egiten duten lanaz jabetzeko balio izan dit.

Informazio instituzionala grisa al da?

Niri ez zait aspergarria egiten. Gainera, ahal den modu arinenean ematen saiatzen naiz.

Denetariko esperientziak biziko zenituen, zein da gogoan duzun une gogor bat?

Ortega Lara bahituta izan zuten zuloa ikusteko aukera izan nuen eguna. Hura ikusi eta deskribatzeak asko hunkitu ninduen.

Eta pozgarria?

Askotan albiste txikietan daude une pozgarrienak. Dena dela, elkarrizketa bat egitean, elkarrizketatuaren baloreak mahai gainean jartzea da aberatsagarriena niretzat.

Bulegoko ala kaleko kazetaritza nahiago?

Nik kaleko kazetaritza atsegin dut; hau da, erredakziotik kanpo egiten dena. Horrela, zerorrek ematen duzu zerorrek jorratutako gaiaren berri.

Azpeitiar izaerari lotutako pasadizorik gertatu al zaizu urteotan?

Bai. Jose Antonio Ardanza [EAEko] lehendakaria zela, kazetari talde batekin solasean hasi zen. Bakoitza zein komunikabidetako zen jakin nahi zuen. Horretan ari zela, galdetu zidan: “Eta zu nongoa zara?”. “Ni azpeitiarra”, erantzun nion. Denak barrez hasi ziren. Gero ohartu nintzen jakin nahi zuenaz.

Lan errutina asko aldatu al da zu lanean hasi zinenetik hona?

Gauzak pixkanaka aldatzen joan dira: teknolo-




Axun Arozena estudioan, Gasteizen.

giak aurrera egin du, hizkuntza aldatu egin da, eta, ondorioz, gaur egungo lan egiteko modua desberdina da. Lehen bobina izugarriak erabiltzen genituen, teletipoak moztu egin behar izaten genituen, eta A eta B aldeak entzun behar izaten genituen zatirik egokiena aukeratu ahal izateko. Gaur egun lan egiteko era arinagoa, errazagoa eta kalitate hobegokoa da.

Nola ikusten duzu Euskadi Irratiaren etorkizuna?
Inguruko komunikabide denak teknologikoki aurrera badoaz, guk ere ezin dugu atzean geratu. Bide horretatik segitzeko ahalegina egin behar dugu. ◀

EHEk zure ekarpena behar du! EGIN ZAITEZ BAZKIDE
92 euro (hiru hilean behin 23 euro)



Euskal Herrian Euskaraz
Martin Ugalde Kultur Parkea,
Gudarien etorbidea 8- 20100 Andoain

Izen Abizenak _____
Helbidea _____ Posta Kodea _____
Herria _____ Telefonoa _____
Banketxea edo kutxa _____
Kontu korrontea (20 zbk.) _____
Honen bidez, aipaturiko entitate honetan irekia dudan kontu korrontean aurkezten diren epeetan kargatu dadin nire baimena berresten dut:
_____ko _____tik aurrera.

Titularraren sinadura:

Bazkideza txartela

SASOIKO emakumeak

Urtero bezala, azaroaren bigarren igandean Behobia-Donostia lasterketa izango da. Bagitxitxin taldeko emakumeak gogor ari dira entrenatzen

► Testuak eta argazkiak: Arantxa Aldalur

Inguruko lasterketarik ezagunena da Behobia-Donostia. Hamalau mila lagunek hartuko dute parte aurten, eta asko dortsalik gabe geratu dira, gainera. Loiolan eta inguruan nabarmena da lasterkalari askorentzat serio prestatzeko egunak direla. Bai gorputza, baita burua ere, horixe baita atalik indartsuena.

Lasterkalari haien artean gero eta gehiago dira emakumeak. Esate baterako, Mamen Etxaniz, Mari Kruz Guridi eta Mertxe Urtuzaga.

MAMEN ETXANIZ ►
kirolaria

“Azpeitiar gehienak Mirakruzen egon ohi dira”



“Hogeita hamar urte daramatzat lasterketa ezberdinetan parte hartzen. Behobia-Donostia aurreneko aldiz 1984an egin nuen. Orduan, gainera, parte hartzeagatik oroigarri bat ematen zuten eta oraindik gordeta ditut etxean. Giroa izugarria da. Sekulakoa da hogeit kilometrotan jendea animatzen ikustea. Hor dago arrakastaren gakoa.

Behobia lasterketako zatirik gogorrenak Mirakruze gaina eta Gaintzurizketa dira. Azpeitiar

gehienak Mirakruzen egon ohi dira ikusten. Gu, badaezpada, aldapa hasi aurretik arnasa sakon hartu eta ahal den aurpegirik onena jartzen saiatzen gara, herritarrek ondo ikus gaitzaten. Orain urte batzuk arte Pasaiako portua itxita egoten zen ikusleentzat eta oso luze egiten ziren egin beharreko kilometro eta erdi hura jendearen animorik jaso gabe. Aldapa gogorak izan arren, jendearen harrerak ikarragarri laguntzen du. Oso garrantzitsua da hasiberriei beldurrak kendu eta ondo pasatzeko egiten dugula gogoraraztea, presioa kentzea.

Taldean korritzeak animo handia ematen du. Jendeak edozer gauzaesan ohi digu baina kasurik ez egiten ikasten da. Dena dela, ikusleen artean esan beharra dago denetariokoak daudela eta izugarri animatzen gaituzten gizonezkoak ere badaudela.

Bizitzeko eta ondo pasatzeko modu bat da lasterka egitea. Ez nau marka haustek obsesionatzen. Beti saiatzen zara gauzak ahal den ondo egiten, edo hobetzen, baina obsesionatu gabe. Argi dagoena da ondo pasatzeko egiten dugula kirola, eta presiopean edo obsesionatuta ez genduen hainbeste urtean jarraituko inola ere”.

MARI KRUZ GURIDI ►
kirolaria

“Psikologoetan aurrezteko modua ere bada korritzea”



“Hamabi edo hamahiru urte dira es-trainezkoz irten genuela. Bagitxitxin izenpean, zazpi emakume elkartu ginen lasterketan parte hartzeko asmoarekin. Gaur egun, taldea handiagoa da. Une honetan 21 emakume gara taldean. Denek ez dute Behobia-Donostia egingo, baina beste lasterketa batzuetan parte hartzen dute horiek: Zakila Biran, Lilitoian, Quebrantahuesosen, tria-tloietan...”

Pirinioetara joateko ibilaldiak ere antolatuta izan ditugu, baita makina bat afari ere. Emakume kirolzaleok osatzen dugun taldea da. Lagunarte polita osatzeaz gain, psikologoetan aurrezteko modua ere bada lasterka egitea.

Behobiarako irail hasieran hasten gara gogor entrenatzen, baina korrika urte osoan egiten dugu. Izan ere, ohiturari eustea komeni da. Astean lautan entrenatzen gara; zortzi edo hamar kilometro inguru aldiko. Larunbatean, berriz, hamasei bat kilometro egiten saiatzen gara.

Pasadizoak ere bizi izan ditugu



Bagitxitxin taldekoak, Loiolan.

urteotan. Gogoratzen dut urte batean izugarriko beroa egin zuela Behobian eta ez zegoela urik. Bizikletan aurrera eta atzera ibiltzen diren antolatzaileen potentiatik edan behar izan genuen.

Beste batean, egoera berdintua tokatu zitzaigun eta baserri-tar batek ur balde bat atera zuen atarira. Korrikalari guztiak han joan ginen eskuekin ura edatera. Berdin zitzaigun eskuak izerditan edukitzea. Aurrera jarraitzekotan, derrigorrezkoa zitzaigun edatea. Halakoetan edozer egiten da. Antolakuntza ona oso garrantzitsua da horrelako lasterketetan

Emakumeen eta gizonezkoen arteko konparaketei dagokionez, azpimarragarria da emakumeok askoz ere denbora gutxiago daukagula entrenatzeko. Ni ama naiz eta, lantokiko lanaz gain, ardurazko izaten ditut buruan: erosketak, semearen ikastolako bilerak, etxe lanak... Entrenatzera etortzen garen emakume guztiok bu-



katutakoan zer egin behar dugun pentsatzen egoten gara. Gizonetakoak, aldiz, entrenatzera joaten dira eta kito; badakite bukatzean emazteak dena gobernatura izango duela etxean. Baina niretzat lasterka egitea neure buruari oparitzen diodan zerbait da; neuretzat behar dudana denbora da egin behar guztien gainetik”.

MERTXE URTUZAGA ▶
kirolaria

“Gizonen eta emakumeen berdintasuna urruti dago”



“Urte hauetan denetan Behobia-Donostian emakumeen parte-hartzea nabarmen handitu da. Ur-

tetik urtera goraka doa. Orain 30 urte jendea ez zegoen mentalizaturik eta ez zuen uste posible zenik emakumeek kirol hori egin genezakeenik. Hori aldatzen ari da gutxinaka-gutxinaka.

Lasterketa batean parte hartzeko unean, burua eta oinak, biak beharrezkoak dira. Dena dela, entrenatuta joan arren,

buruak ez badizu laguntzen, jai daukazu.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna oraindik ere urruti dagoela pentsatzen dut. Emakumeentzako sariak txikiagoak izaten dira, babesleak aurkitzea oso zaila da, eta sarritan izugarritzko astakeriak entzun behar izaten ditugu”. ◀

azpeitiko

G I D @

HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

K
CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK



antzezlan BERRIA

Lakrikun antzerki taldeak antzezlan berria estreinatuko du azaroaren 24an, Euskal Antzerki Topaketan 25. urteurrenaren baitan

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkiak: Uztarría

Azpeitiko Lakrikun antzerki taldeak 25 urte... ta segi bueltaka antzezlan estreinatuko du azaroaren 24an, 21:30ean, Izarraitz pilotalekuan. Euskal Antzerki Topaketak 25 urte beteko ditu aurten. Urteurrena ospatzeko taularatuko dute lan berria azpeitiarrek. Antzezlan zahar eta berriak uztartuta, bat-bateko jarduna eskainiko dute herritarren aurrean.

XXV. Euskal Antzerki Topaketak azaroaren 8tik 30era ospatu-

ko dira. Leire Lazkano Udaleko Kultura batzordeburuak uste du ekimena dagoeneko "txertatuta" dagoela herrian. "Aurten, 25. urteurrena dela-eta antzerkiari bultzada eman nahi diogu urte osorako ekitaldiak antolatuta".

▶ URTE GUZTIRA ZABALDU.

Udalak "antzerki produkzio handiak" alde batera utzi eta "formato txikiko antzerkien aldeko apustua" egin nahi du urtean zehar. Horrela, irakurketa dramatiza-

tuak, kafe antzerkiak eta era desberdineko antzezlanak antolatze-ko asmoa azaldu du Kultura batzordeburuak. "Herria piztu nahi dugu urteko asteburuetan. Jendea hezi egin behar da ekitaldi kulturaletan parte hartzera". Udal ordezkariak kultura alorreko herriko taldeekin hitz egingo dute, beharrak zehaztu eta horren araberrako ekintza kulturalak sustatzeko. "Herrian kultur ekitaldiak antolatzea behar-beharrezkoa da".

Topaketan baitan eskaintza zabal izango da aurten: antzerki profesionala, amateurra, familiarra eta eskola artekoa ikusteko aukera izango da. Gainera, Txontxongiloak, mundu bat erakusketare ere ikusgai egongo da azaroaren 12tik 25era udaletxeko beheko solairuan.

▶ **ZALETASUNA.** "Herrian antzerkigintzarekiko zaletasuna errotuta dagoela iruditzen zait", dio Lazkanok. Ildo horretan, Zapo Txokon, Emakume Taldean eta ikastetxeetan izaten diren ikastaroak azpimarratu ditu. "Herritarrek gustura joaten dira antzerkiak ikustera topaketetan, ohitura bilakatu da dagoeneko". ▶



Egitaraua

AZAROAK 9 ▶

Dar Dar, 21:30ean.

▶ *Gaurko menua.*

AZAROAK 10 ▶

Txalo, 21:30ean.

▶ *Bota patsa.*

AZAROAK 11 ▶

Golden Appel Quartet, 18:00etan.

▶ *Karabas.*

AZAROAK 17 ▶

Kanpingags, 21:30ean.

▶ *Lapur zuloa.*

AZAROAK 23 ▶

Pok & Des Chimeres, 21:30ean.

▶ *Amamaren memoria.*

AZAROAK 24 ▶

Lakrikun, 21:30ean

▶ *25 urte... ta segi bueltaka.*

AZAROAK 25 ▶

Txalo, 18:00etan.

▶ *Magia teilatuan.*

AZAROAK 30 ▶

Ez dok hiru bikoteatroa, 22:00etan.

▶ *Lezio berri bat ostrukari buruz.*

▶ **Ekitaldi guztiak Izarraitz pilotalekuan izango dira.**



Lakrikun antzerki taldeko kideak antzeztan.

Egitarau osoa uztarría.com-en




OINEZKOENTZAKO BIDEA ZEIN DA?

Garmendipetik Loiola aldera doan bidegorrian oinezkoak alderatuta utzi dituztela dirudi. Izan ere, oinezkoaren zeinu azpian egindako marrazkiak ez du zalantzarako lekurik uzten: bizikletak ezkerrean eta patinetedunak eskubian. Itxura denez, zenbait herritarrek bizitza gurpil gainean irudikatzen dute... Argazkian, zalantzaren aurrean erditik joatea erabaki duen herritarra ageri da.

► Testua eta argazkia: Maider Zendoia

Efemerideak ▶ azaroa



Instituto Laboraleko ikasleak gimnasia egiten. UROLA I.

joxe takolo JAIO ZEN

Literatura sariak, bertso txapelketak...
gertakariz josita etorri izan da azaroa

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarría)

AZAROAK 3-1941 ▶

'Takolo' jaio. Joxe Urbieta *Takolo* mendizalea jaio zen.

AZAROAK 4-1986 ▶

Valverderi omenaldia. Cesar Valverde pilotazaleari omenaldia egin zioten Izarraitz frontoian.

AZAROAK 17-1852 ▶

Sutea. Bustinzuriko Errebaleko 15. zenbakian izandako suteak arriskuan jarri zituen inguruko eraikinak.

AZAROAK 18-2003 ▶

Saria Morillorentzat. Fernando Morillo idazleak *Izar Malkoak* lanarekin haur eta gazte literaturari dagokion Euskadi Literatura Saria jaso zuen, Gasteizen.

AZAROAK 20-1964 ▶

Eraikina berritu. Anai Maristentzako ikastetxe berria egiteko ardura Ramon Abaunzi ematea erabaki zuten.

AZAROAK 24-1955 ▶

Instituto Laborala. Herriaren udaletxe zaharrean Instituto



Joxe Urbieta *Takolo* mendizalea.

Laborala inauguratu zuten. Lehen ikastarorako 50 ikaslek eman zuten izena.

AZAROAK 26-1989 ▶

Bertsolari Txapelketa. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalaurreko saioa jokatu zuten Izarraitz frontoian.

AZAROAK 29-1973 ▶

Patronatua egiteko lurrak. Herriak Donostiako Kutxa Munizipalari San Miguel Patronatua eratzeko lurra eskaini zion, doan. ◀

Pertsonaia ▶

AGIRRE TXAPELDUN.

Leire Agirre eskalatzaileak Espainiako kirol eskaladako Kopa irabazi zuen 2000ko azaroaren 25ean, Granadan (Espainia). Hamabi urterekin hasi zen Xoxoten eskalatzen eta harrezkero hamaika txapelketetan parte hartu izan du.



Datua ▶

5

URTE ODRIOZOLA OMENDU ZUTELA.

Kontxu Odriozola aktoreari omenaldia egin zioten 2002ko azaroaren 9an XX. Euskal Antzerki Topaketen baitan. Ekitaldi hartan, Pako Aristi idazleak Odriozolari buruz idatzitako liburua aurkeztu zuen herritarren aurrean.

Argazkia ▶



JOAN PAULO II.A LOIOLAN 1982-AN.

Dagoeneko 25 urte bete dira Joan Paulo II.a Loiolan izan zenetik. Argazkian, Carlos Garaikoetxea EAEko orduko lehendakaria —ezkerrean—, Joan Paulo II.a —erdian— eta Jose Maria Setien Donostiako orduko gotzaina, Loiolan, 1982ko azaroaren 6an.

Kontua da... ▶

San Agustingo obrak



Imanol Elias
Odriozola

Urteetan zehar aldaketa handiak ezagutu ditu Pedro Arriaran jaunak 1578. urtean eraikitako San Agustin eraikinak.

Agustindar fraideak egon ziren komentuan, 1837ko uztailaren 27ko legeak erlijiosoen komentuak ezerezean utzi zituen arte. Hiru urte geroago, Azpeitiko agintariak erabaki zuten herriarena zen eraikina Espainiako Gobernuari eskatzea. Erantzunik ez zuten jaso; beraz, eskaera berri bat egin zuten 1841ko ekainaren 16an. Bigarren eskarian, herritarrek eraikinaren erabilera zehaztu zuten: alondegia, harategia, arrandegia eta postu publikoak jarri beharko zituzten lehen solairuan, eta udaletxea eta eskola goiko solairuetan. Une hartan erregeorde zen Esparterok eraikina herriaren eskuetan jartzea erabaki zuen, eta 1842ko apirilaren 8an sinatu zuten Gobernuaren eta herriaren arteko eskritura.

Beraz, eraikineko lehen obra handia 1849tik aurrera burutu zuten, udaletxearekin eta bulegoak ez ezik, eskola gelak ere egokitu zituztela. Elizak lehenengo lekuan jarraitu zuen, eta herriak igande eta jaiegutetan meza emateko eskaera luzatu zuen.

Beheko solairuan, haurrentzako eskola egokitze-ko obrak inauguratu zituzten 1870ean. Handik hiru urtera, herriko agintariliberaletan gotorleku eta kuartel gisa erabili zuten eraikina. Karlistak herriratzean, berriz, Artilleria Parkea ezarri zuten han. Behin baino gehiagotan entzuna da karlisten sinboloa izan dela San Agustingo eliza...

Herriak 1994n eskuratu zuen eraikina bere osotasunean. Gaur egun, eliza zegoen gunea obretan dago, baina ez postu publikoak ezartzeko (garai batean herriak eskatu bezala), baizik eta beste behar batzuei erantzuteko; kultura suspertzeko, batik bat.

Garai bateko Azpeitia ▶ Mertxe Uribarrenek kontatua

herri arteko ALDAKETAK

Mertxe Uribarren izatez arrasatearra bada ere, 47 urtean bizi da herrian. Aldaketa ugariaren testigantza bizia da

▶ Testua: Mainer Zendoia

Mertxe Uribarren (Arrasate, 1933) ezkondu ondoren etorri zen Azpeitira bizitzera. Dagoeneko 47 urte daramatza bertan bizitzen. "Arrasatetik Azpeitira etorri nintzenean alde handia narbaritu nuen bi herrien artean", dio Uribarrenek. "Azpeitian dantza lotua ezin zen egin eta Arrasaten, berriz, herri guztia ateratzen zen dantzara".

Azpeitiko bizimodura moldatzea kostatu egin zitzaizela onartzen du. "Igande batean Bar Antonera –gaur egungo Fideo– sartu nintzen neroni bakarrik, bermuta hartzera. Hamar bat gizon zeuden mostradorean eta

mamua banintz bezala begiratu ninduten". Etxekoekin hitz egin ondoren konturatu omen zen ez zela ohiko jokabidea herrian. "Ez nau batere harritzen, azpeitiarrak oso lotuta bizi ziren-eta inguruan hainbeste jesulagun eta moja izanda".

Uribarrenen ustez, "Azpeitia asko piztu zen Telefonika jarri zu-

“Lehen, kaleko bizitza gehiago egiten genuen. Gaur egungo bizimodua asko aldatu da; gehiegi”

MERTXE URIBARREN ▶ erretiratua



Emakume talde bat josten ikasten.

IMANOL ELIASEN ARTXIBOA

tenean". "Ordura arte oso jende gutxi egiten zuen lana etxetik kanpo. Ni hona iritsi nintzenean, herriko ia emakume guztiak jostuak ziren". Haren iritziz, "emakume lanean hasteak asko aldatu zuen herriko bizimodua".

▶ **AUZOTARRAK.** Orain urte batzuk auzotarren arteko harremana estuagoa zela iritzi dio. "Silvestre Otamendi zenak animatuta, San Agustin jaiak –abuztuaren 28an– antolatu genituen 1970 eta 1975 bitartean Santo Domingo kalean –gaur egungo Goiko kalean–. Goizean meza izaten zuten San Agustin kaperan, irteeran txorizoa ematen zieten herriko jubilatuei, bazkalostean haurrentzako jolasak antolatzen zituzten eta, ondoren, Egaña gozotegikoek haurrentzako txokolatea ematen zuten.

Mertxe Uribarrenek nostalgia puntu batekin gogoratzen ditu garai haiek. "Lehen, kaleko bizitza gehiago egiten genuen. Gaur egungo bizimodua asko aldatu da; gehiegi". ◀



Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarría	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendaratea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaia)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

EAE-ANV	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarría Kultur Koor.	15 03 58

Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 08 88

Farmaziak ▶ azaroa

GAUEZ

1-2-13-22

Beristain (Azpeitia).	943 81 19 49
-----------------------	--------------

3-4-15-19-24-25

Garcia (Azpeitia).	943 81 12 74
--------------------	--------------

5-10-11-30

Gisasola (Azkoitia).	943 85 12 35
----------------------	--------------

6-7-26

Ruiz (Azkoitia).	943 85 19 66
------------------	--------------

8-27-28

Jaen (Azkoitia).	943 85 06 60
------------------	--------------

9-29

Azpiazu (Azkoitia).	943 85 29 89
---------------------	--------------

12-17-18-21

Aranburu (Azpeitia).	943 81 13 50
----------------------	--------------

EGUNEZ

1-2-7-13-22-26

Beristain (Azpeitia).	943 81 19 49
-----------------------	--------------

3-4-9-15-19-24-25

Garcia (Azpeitia).	943 81 12 74
--------------------	--------------

5-10-11-16-20-29

Jacome (Azpeitia).	943 08 02 58
--------------------	--------------

6-12-17-18-21-30

Aranburu (Azpeitia).	943 81 13 50
----------------------	--------------

8-14-23-27

Alberdi (Azpeitia).	943 81 59 74
---------------------	--------------



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

EGOERA ZIBILAREN ALDAKETAK TRAMITATUZ.

Erregistro Zibilean herritarren egoera zibilaren inguruko aldaketen berri eman behar da. Jaiotzak, ezkontzak, heriotzak, tutoretzak eta ordezkariak legalak inskribatzen dira han. Goiko kalea 12 helbidean edo 943 02 51 99 telefono zenbakira deituta aurki daitezke.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

MARI KARMEN GURRUTXAGA ▶ Helduentzako Eskola Publikoko ikaslea

“Motibatu egiten nau berriz ere ikasteak; orain dut aukera”

▶ Testuak eta argazkiak: Enekoitz Esnaola



TXIKITAKO AMETSA.

“Nuarben familiako taberna ondoan lokutorioa zegoen, eta handitan telefonista izan nahi nuen horregatik-edo. Telefonikan sartu nahi izan nuen gero, baina bista arazoagatik ez ninduten hartu”. Argazkian, Gurrutxaga 11 urte zituela Nuestra Señora del Pilar Donostiako ikastetxean.

Belen Gonzalezek, Alejandra Farak edota Maria Luisak hamahiru-hamabost urterekin utzi zioten ikasteari, “etxera dirua eraman behar zelako”. Orain Azpeitian Bigarren Hezkuntzako titulua ateratzen dabil. Mari Karmen Gurrutxaga ere Helduentzako Eskola Publikoan dabil. Bera da ikaslerik zaharrenetakoa (67 urte dauzka).

Zuk noiz utzi zenion ikasteari? Hamalau urterekin.

Non zenbiltzan?

Donostian orduan. Hamar urterekin joan nintzen, Nuarbeko eskolatik. Kultura orokorra delakoa ikasi nuen Donostian, batik bat.

Zer dela-eta hara?

Gure aitona zenak, Ximonek, kulturari garrantzi handia ematen zion. Neuk ez nuen ezagutu hura, baina gure aita Joxek hori jaso zuen harengandik.

Donostiatik nora?

Nuarbera, familiaren tabernara lanera. Ez nuen nahi ikasten segitzetik. Hala ere, nik beti izan dut kultur kezka.

Ikasteari heldu diozu berriro.

Baina 29 urtetik 49ra arte San Miguel Patronatoan jardun nuen atzeratuei eskulanak erakusten. 46 urterekin kliniko laguntzaile titulua atera nuen, eta 65 urtera arte ikastetxeetan ume berezien laguntzaile aritu nintzen.

Iaz, Azkoitira, klaseetara.

Azpeitian ez zegoen-eta. Motibatu egiten nau. Orain dugu aukera 60taka urte dauzkagunok halakoa egiteko. Jendea animatu nahi nuke. Gainera, klaseen ondoren kafetegira joaten gara...

Zer ari zara ikasten?

Literatur tailerrean nabil. Gustura. Astean bi ordu; ez nuen agobiatzerik nahi orain behintzat. Oso irakasle ona dugu: Rosa. ◀

Aipatutako beste hiru ikasleren elkarrizketak uztarria.com-en

Zaindu ▶ Perrexita

Julian
Bereziartua



Hain etxekoa izanda, ez zaigu bururatu ere egiten perrexilaz hitz egitea. Belar usaintsuen artean, gure etxeetako sukaldaritzako lehen postuan aurkitzen da.

Mendebaldeko zibilizazioko bazter guztietan landatu izan dute perrexila. Beti izaten du tokiren bat etxe ondoan. Gainera, erraz hazten da, zainketa handirik gabe.

Kaloriatan neurtzen dugun balio elikagarriak ia batere ez du, oso kantitate gutxi kontsumitzen dugula kontuan izanda. Freskoa erabiltzen da gehienetan, baina zainak, hostoak eta haziak zertxobait lehortuta ere (itzalean beti) erabil daiteke.

Sendakuntzan ere nabarmena da haren presentzia. Sendagile bezala esan dezaket diuretiko delat eta tentsioa txikitzeko ere balio duela; hain gogaikarriak diren hesteetako haizeak saihesteko, adibidez. Liseri-aparatuko askariak eta oxiueroak bezalako parasitoen aurka ere eragiten du.

Infusio bezala prestatzea da egokiena. Dena dela, estraktu, tintura, xarabe edo zuku fresko bezala prestatuta ere ez du dohanik galtzen.

Oro har, perrexila landare apala da, baina ohorezko lekua du sukaldaritzan. Izan ere, beti ezingo ditugu bada boilurra edo azafraia erabili (berrogeita hamar mila aldirik gehiago ordainduta).

JAIONE PORRAS ▶ entzumen zentroko arduraduna

Entzun edo aditu?

Nahiago dut aditzea.

Isiltasuna ala zarata?

Zarata.

Entzumeneko ohiko arazoa?

Ulertzeko zailtasunak.

Aholku on bat?

Adin batetik aurrera urtero errebisatzea entzumenara.

Elkarri entzuten al diogu?

Beharrezkoa baino gutxiago.

Belarriak zaintzeko modu egokia zein da?

Kotoi-txotxen erabilera saihestea eta tartean behin tapoiak kentzea.

Oihukatu ala xuxurlatu?

Xuxurlatu.

Soinu bat.

Itsasoak ateratzen duena.

Melodia bat.

Biolinaren soinua.

Mania bat.

Altuegi entzutea MP3a, telebista, irratia...



▶ Testua eta argazkia: Mainer Zendoia

Abizena ▶ Zubiaurre

Armarria.

Ezkerraldean harrizko gaztelua eta eskuinaldean bi otso ageri dira.

Irudi guztia gorri koloreko herutzak inguratzen du. Han, berde koloreko zortzi gurutze daude ilaran kokatuta.

Banaketa semantikoa.

▶ 'Zubi' eta 'aurre' hitzek osatzen dute.

Esanahia.

'Zubiaren aurrean' esan nahi du.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Zestoa.
- ▶ Bergara.
- ▶ Azkoitia.
- ▶ Ezkio-Itsaso.
- ▶ Ormaiztegi.
- ▶ Villabona.
- ▶ Lizartza.
- ▶ Ibarra.
- ▶ Bergara.
- ▶ Etxeberria.
- ▶ Markina.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Zarautz (1692).
- ▶ Itxaso (1704).
- ▶ Ormaiztegi (1655).
- ▶ Azkoitia (1662).



Esandakoa ▶

“ Lapatz-eta 2009an ixtean, hondakinak Bizkaira eramateko aukera egon daiteke”

CARLOS ORMAZABAL ▶

Garapen Jasangarriko diputatua

“ ‘Western Basque Festival’ liburuan ez dut saio akademikoa idatzi, literario espekulatzaila baizik”

MIEL A. ELUSTONDO ▶

kazetaria eta idazlea

Zenbat ▶

15.427

AUTO EGUNERO.

Foru Aldundiaren datuen arabera, Azkoitia eta Azpeitia arteko errepidean egunero 15.427 auto ibiltzen dira.



kutxa

Gertuko pasadizoa ▶

oroimenerako GARRAIOA

‘Urolako tren 1926-1986’ liburutik
hartua ▶ Argitaratzailea: Udala ▶ 2002
▶ Egileak: I. Artetxe, L. Odriozola, J. Olaizola



KAPITULUA ▶ Aurreneko 25 urteak 1926-1951 (59. orrialdea)

1926ko otsailaren 23an, bere inaugurazioaren azken oihartzunak itzalita, hasi zen Urolako trenaren ohiko ibilbidea. Orain ikusiko zen Gipuzkoako Foru Aldundiak trenaren eraikuntzarako eta baliabide mugikorrek erosteko erabilitako 25 milioiren (hogeigarren hamarkadakoak) ordainketarako egin zuen ahalegin ekonomikoa errentagarria zen ala ez.

Tren berriaren etorrerak, mesede handia egin zien Urola bailarako industriei euren produktu manufakturatua kanpora bidaltzeko aukera zabalduz. Hala ere, ez ziren bete industria berrien sorreraren itxaropenak.

Urola trenaren historiaren aurreneko urteetan, errepideetako garraiobideen kopurua ez zen gaur egun adinakoa, baina gainontzeko garraiobideentzat lehiakide indartsua bihurtzen hasia zen.

Trenak bai estatuko eta baita ere nazioarteko krisi ekonomiko larrien ondorioak pairatu zituen. Esanguratsuenak, nere ustez, bata, 1926an Primo de Rivera generalak sortutako CAMPSA monopolioari aurre egiteko nazioarteko petrolio multinazionalak pezetaren aurka antolatu zuten erasoaldia. Bestea, New Yorkeko burtsaren 1929ko otsaileko ‘astearte beltza’ deiturikoa. Azken honek, mundu osoan krisi ekonomiko sakona bultzatu zuen.

Jakina, ekonomi krisia Urola bailaraino ere heldu zen. Azpeitian, altzairu fabrika ugari desagertu zen; besteak beste, Urola geltokiaren ondoan etxe eder bat eraiki zuen Landa familiarena. Urte batzuk beranduago, ordurarte Enparantza Nagusian kokatutako Guardia Zibilarren kuartel bilakatu zen. Geroago, Gaudencio Arregiren txaleta izan zen tokian kokatutako Peña altzairu fabrika ere desagertu zen. Gainontzeko fabrikak ere une larriak igaro zituzten, baita Organu Fabrikak ere.

Errepublikak 1931ko apirilaren 14an oso harrera ona izan zuen. Herritarrek uste zuten gaitz guztiak sendatuko zituen botika izango zela. Oraindik gogoratzen dut, Udalak antolatu zituen txistularien kalejira, itxaferoak eta azpeitiarren poza. Errepublikarren ekintza batek, ordea, trenaren funtzionamenduan ondorio zuzenak izan zituen. 1932ko urtarrilean Madridlgo Gorteetan, 26. artikularekin, Jesulagunak Espainiatik bidaltzea eta desjabetzea erabaki zuten. Ondorioz, bidaiarien kopuruak behera egin zuen Santutegira etortzen ziren turista eta erlijiosoak desagertu zirelako.

1926an hasi zen jada Urola tren galerak izaten. Galera hauek gero eta handiagoak egin ziren, eta 300.000 pezetara ere iritsi ziren. ◀

LORE ARDENDA
Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu

 Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25


Clamendi
Peluri Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49


 **domusa**

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

Koh Tao 

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3
Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia
da

-  **Dibujo eta eskulanak**
(haurrak) 17:30/19:00
-  **Pintura** 17:30/19:00
-  **Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Hitz gezidunak ▶

	Tximeleta- ren har	Abarra	DEITURA	Lotura	Sarrera
	Frantziako polizia	Harrapa ezan!	Bokala	Masurioa	
	Gauerokoa		Atzo gauean		
Pitzadurak sortu	Anno Domini	Italiako telebista		3. eta 2. bokalak	
Aitzin solasak	* IZENA	Oinarrizko edaria		Bizkor	
					Txori mota
Ez ona			Karta joko		
Zerbait			Gizon izena		
		Bokala	Irakasle ar		
		Bizkaieraz, iratzea	Denbora tarta		
Atoiatzeko ontzo		Omen		Naizen honek	
Esperan- tza		Komaren erdian		Lehenengo pertsona	
				Urrea	
				Bokala	
Bokal errepika- tua		Emakume izena			Bokala

* Azpeitiar kazetaria


Hizki zopa ▶ aurkitu beheko irudietan ageri diren Odria auzoko baserri izenak




U	R	E	S	A	U	N	D	I	A	A	H
A	D	R	G	I	A	L	E	T	X	O	I
N	B	E	Z	U	G	I	E	O	J	M	D
R	A	H	A	M	A	I	R	K	Z	E	N
K	R	E	I	L	T	D	E	D	A	M	U
E	R	N	R	S	I	X	U	D	O	R	A
R	E	L	O	R	M	E	N	D	I	O	L
A	N	R	I	D	E	N	U	G	L	E	O
D	O	G	A	H	A	K	I	I	O	R	Z
K	L	I	E	L	N	T	A	X	P	I	O
D	A	Z	D	I	L	A	Z	L	Z	A	I
L	O	M	E	R	U	G	U	E	D	O	R
R	K	I	O	S	K	I	N	T	X	E	D
U	P	N	U	Z	T	N	A	L	E	I	O

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN URRIKO ARGAZKI LEHIAKETA

zer dago gaizki?



Ikurra falta du




Joxe Luis Albizuri



Joxe Luis Albizuri Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 88. irabazlea. **Juantxonean** bi lagunentzako afaria irabazi du sari gisa. Argazkian, Joxe Luis Albizuri –ezkerrean– eta Juantxoko nagusia.

Non dago iturri hau?



ERANTZUTENKO EPEA ▶

Azaroak 22 (osteguna)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

AKATSA ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Urrats dendako saria

PARTE HARTZEKO BALDINTZA ▶

Uztarrian bazkide izan behar da

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



ORKATX KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

ORDULARI



Jose de Arretxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA



ekarpena EUSKARARI

EHEk ia hogeit urte daramatza Azpeitian lanean. Euskaltzaleek atek zabalik dituzte bertan aritzeko, eta taldeak diru laguntza ere behar du

► Testuak: Uztarría ► Argazkiak: Euskal Herrian Euskaraz-ek utzita



1 989an sortu zuten Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz (EHE), ia hogeit urte bete ditu taldeak, eta aurrera segitzeko motiborik badu oraindik.

“Hasiera haietan Azpeitian hutsune handiak zituen euskararen eremuan. Adibidez, ez zegoen euskara elkarterik, ezta euskara teknikaririk ere. Euskaingintza ez zegoen antolatuta, herritarrok ez genuen euskaraz bizitzeko aukera handirik...”, dio EHEk. Azpeitian aurrerapausoak eman diren arren, Euskal Herriko egoera asko hobetu behar dela deritzo. “Aurrera begira EHEren zeregin nagusia Euskal Herri osoan euskara ofiziala izango den legea lortzea izango da”.

Horretarako, nazio mailan ez ezik, herrietan ere lana egin behar da Azpeitiko EHEren ustez. Herriko taldeak atek zabalik dauzka

euskaltzale denentzat. Gehiengintan astelehenero elkartzen da, Telefonikako eraikinean (Perez Arregi plaza 1, 1). Jendearen ekarpen ekonomikoa ere eskertuko luketela dio EHEk; bazkide kanpaina abiatu berria du.

► **ANBULATORIOA.** Azkeneko hemezortzi urte hauetan makina bat lan egin du Euskal Herrian Euskarazek Azpeitian. Azkenaldian, batik bat, anbulatorioko egoerari eman dio lehentasuna. “Hura zerbitzu publikoa da, baina euskaldunok euskaraz aritzeko aukerarik ez dugu. Bagenekien herrian kezka eta ezintasuna nagusi zela. Egoera eraldatzeko asmoz, salaketez eta proposamenez beteriko ekimena jarri genuen abian”.

Herritarren babesa eta erantzuna

bilatzeari ekin zioten. Abiapuntu bezala, pediatra euskaldunak izateko edo haiek euskalduntzeko eskatu zuen EHEk. Anbulatorioko hizkuntz gabezien berri ere eman zuen.

“Anbulatorioko egoera, euskaldunok gure herrian pairatzen dugun eskubide urraketaren beste adibide bat da. Euskara ofiziala ez den lurralde zatikatu batean bizi gara, eta hori aldatzeko interes eta borondate falta dago. Dauden legeak, Euskal Herri osoan euskara ofiziala ez izateko asmakizunak dira, ez besterik”.

HAINBAT EKIMEN.

Azpeitiko Euskal Herrian Euskarazek 1989tik hainbat ekimen eraman izan ditu aurrera. Irudietan ageri direnak, besteak beste: ‘anbulatorioan euskaraz’, hizkuntz eskubideen aldeko eguna...



Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)

Ez dut nahi

Urola Kostako Hitza-n irakurrita jakin dut Asier Baglietto zarauztarra Azpeitiko epaitegian epaitu berri dutela Ertzaintzaren aurrean identifikatzeari uko egitea leporatuta. Kontua da Baglietto identifikatu zela, baina euskaraz, eta hori ez gustatu Ertzaintzari.

Nikez dut nahi halako Ertzaintzarik. Ezta euskaldunak euren hizkuntzagatik epaitzen dituen

auzitegirik ere, eta Azpeitian, badugu.

▶ Maddik

Iritzi horren erantzuna

Ertzain itsuak

"Kaixo, egunon". Ertzaintzaren erantzuna: "*Buenos dias. A donde va? De donde viene?*". Euskaraz 'nora zoaz?' eta eta 'nondik zatoz?' esaten da. Askotan geratu izan naute errepi-

deko kontrolean, nire lana dela eta. Gehien harritzen nauena zera da, askotan ertzain gazteak direla horrela agurtzen nau tenak. Bietako bat, edo erdal dun-erdaldunak dira denak edo nagusiak esaten die lanean erdaraz aritzeko. Eusko Jaurlaritzari esango nioke, herri honen ondarerik balioetsuena euskara dela. Milaka urte dituen eta euskaldunon hizkuntza bakarra euskara denez,

xahutu dezagun dirua geure hizkuntza indartzeko. Nik ez dakit Eusko Jaurlaritzak urtero euskararengatik ematen dituen miloika euroak non xahutzen dituzten, baina hobe luke pare bat milioi Ertzaintzaren komisarrietan utziko balitu. Euskara sutuki defenditzeak ez du esan nahi ezker abertzalekoa izan behar denik, ertzain itsuek hori pentsatuko duten arren.

▶ Ander

Zer dio? ▶ Iñaki Martinez (Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz-en izenean)

Egin bazkide

Euskal Herria euskaraz eraikitzen ari gara, Euskal Herri euskaldun batean bizitzeko eskubidea eta nahia dugulako. Hala ere, euskaldun bezala agertzea ez batere erraza, oztopoak handiak baitira. Alde batetik, estatuen eskutik jasaten dugun zapalketa eta eraso polizia-judizialak gero eta jarrera bortitzagoarekin etortzen zaizkigu. Herri mugimendutik sortu ditugun tresnak deuseztatzen dizkigutela (*Egunkaria*-ren itxiera, Martin Ugalde Parkearen aurkako operazioa, euskalgintzaren hainbat enpresen aurka, atxilotuak...), eguraldia oso beltz jarri zaigu euskalgintzako eragile eta elkarteoi.

Hala ere, eman diren eta emango diren erasoak ezin ditugu modu isolatuan ulertu. Etsaiek darabaten suntsitze estrategiarren barruan kokatu behar dira.

Argi dute, euskaldunok gure herria eraikitzeak hautua egin dugula eta horren aurrera jarraituko dugula oztopoak-oztopo. Horrek beldurtzen ditu eta hori da geratu nahi dutena. Urratsak egin ahala gure nahia lortuko dugula ikusi dute. Honela, bada, dagozkigun eskubideak lortuko ditugula eta dagozkigun hori 'bahituta' ezin dutela mantendu ikusi dute.

Erasoa ez da hori soilik, egunero bizitzen baitugu hizkuntza zapalkuntza gure larruan. Ezin euskaraz egin osasun etxean, epaitegietan, lanean, komertzioetan, eskolan gure seme-alabak ez euskalduntzea %100ean, euskarak lege bakar bat ez izatea bere lurralde osoan eta abar luze bat.

Egoera zaila dugu baina ez gaude eskuak antxumaturik! Ez horixe! Hor dihardugu euskaldunon hizkuntza eskubideen defentsa egiten,

- ▶ Euskararen kontrako erasoaren aurrean tinko agertzeko.
- ▶ Euskal Herri euskaldunaren alde arratsak egiteko.
- ▶ Ofizialtasuna lurralde osoan lor dadin eragiteko.

- ▶ Haur guztiak eskola bidez euskaldundu ahal izateko.
- ▶ Euskararen aldeko kontzientzia eta mobilizazioa sustatzeko.
- ▶ Herri mugimendu sendo eta eraginkorra izateko beharrezkoa delako.

Honela bada, hori guztia aurrera eraman ahal izateko zure laguntza behar dugu. Laguntza esaten dugunean, ekarpen ekonomikoa eskatzen dizugu. Hasieran esan bezala, herri mugimendua izanik, geuk sortzen ditugun iturrietatik bizi gara, instituzioen laguntzarik gabe. Horregatik jotzen dugu zuregana, euskaltzale hori, zure laguntza ezinbestekoa delako, euskararen normalizazioa eta dagozkigun eskubideak lortzeko.

Egin zaitetz bazkide!


Bazkide egiteko

Tokia. Uztarria Kultur Koordinakundearen egoitza.

Diru laguntza. EHEren bazkide egiteko hiru hilabeteko 23 euro dira.

Oharra. Ikusi Uztarria herri aldizkariko 23. orrialdeko txartela. ◀

Euskararen gorabeherak ▶



GORA. Bai Euskarari akordioa berretsita Azkoitian

Azkoitiko Udalak eta Kontseiluak Bai Euskarari Akordioa berretsi zuten urriaren 11n. Oso albiste ona aurten ere aldameneko herrikoek eman dutena.



BEHERA. Euskara zaborrez zikindu nahian...

Oharra euskaraz soilik irakurtzeak iraindu egin du, nonbait, beheko idatziaren egi-lea. Ez da zilegi herri bati bere hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna ukatzea.

AZPEITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Udaltzaingoa
Guardia Municipal

ZABORRIK EZ UTZI HEMEN

TU SABES CHINO? NOSOTROS TAMPOCO EUSKERA

Zabor poltsak Erdi Kalera atera behar

Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Gure herrien berezko izenak errespetatuak izan daitezzen eragin. ‘Baiona’ beharrean ‘Bayonne’ agertzen bada, horrela idatzi duenari zure kexa adierazi”

Euskal Herrian Euskaraz ‘Bideak’ eskuliburutik hartua; Uztarrin dago edonoren eskura

Albistea ▶

Patxi Azkargorta: “Borroka gabe, ez dago ikastolarik”



Bergarako Kilometroek Patxi Azkargorta omendu dute aurten (hangoa da sortzez). Urriaren 7an, hain zuzen (argazkia ordukoa da). Espainiako Gerra baino lehen herri hartan zegoen ikastolako ikasle izan zen.

Azkargortak omenaldiko hitzaldian esanak: “Gipuzkoako lehen ikastola Bergarakoa izan zen. Gaur egun farmazia bat dagoen lokalean zegoen”, “gero, Azpeitian bizi nintzela, jesuitekin hitz egin beharra zegoen, haiek Loiolan hutsik zeukaten lokala guretzat hartzeko ikastolarako. Esan nien: ‘Erromara joan behar badut joango naiz’”, “borroka egin barik, ez dago ikastolarik, baina fruitua ematen du gero”. ◀



PANDORA

Jewelry



plaza txiki, 7
Tel.:943 81 23 67